

2010, hotza eta elurraren urtea



GOIEGI
Jatetxea - Restaurante



Irubide bailara 1 • 20160 Lasarte-Oria • Gipuzkoa • T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78



jai
KAFE-ANTZOKIA




**kontzertuak
antzerkiak**

giro paregabea pintxo goxoekin

Urteberri on !

**GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024**



**UDABERRI
elkartea**

2011 zoriontsua opa dizuegu!

Andatza plaza z/g, behea
Tel.: 943 371983
LASARTE-ORIA



**JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.
eraikuntzak**

2011 zoriontsua opa dizuegu !

- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak



Obaba Kalea 29 • Asteasu • Tel./Faxa: 943 696 852 • Mobila: 620 800186

Urtarrila



Martxoa



Maiatza




Uztaila



Iraila



Azaroa



Otsaila



Apirila



Ekaina



Abuztua



Urria



Abendua



Lan baldintzak hobetzeko kontzentrazioak

11 Atsobakar zahar egoitzako erizaintza langile eta garbitzaileek kontzentrazioak egin zituzten bere egoera salatzen. Bere zerbitzuak kudeatzen dituen enpresak, Clece, ez zituen Udalarekin adostutako baldintzak betetzen, hau da, soldata baxuagoa ordaintzen zien eta, gainera, jai egun batzuk eta baimenak kendu zizkieten. ELA eta UGT sindikatuetako ordezkarien laguntza izan zuten. Hilaren 21ean ere, kotxe ilara eta txistu hotsen bitartez herrian zehar manifestatu ziren.

03 Zubizarreta eta Elizalde Gipuzkoako judoko txapel-dun: Lezon ospatutako Gipuzkoako junior txapelketan, bi txapel-dun izan zituen LOKEko judo taldeak, Iñaki Elizalde 100 kilo azpiko mailan eta Leire Zubizarreta 70 kilo azpiko mailan eta Esteban Martinezek brontzezko domina eskuratu zuen.

04 Euskal Preso Politikoen borrokaldi berria: Urtarrilaren 4an hasi zuen Euskal Preso Politikoen Kolektiboak borroka aldi berri bat. Aste beteko gose grebak, itxialdiak... eta beste hainbat neurri hartu zituzten. Prozesu demokratikoa eskatzen zuten, demokrazia heldu dadin Euskal Herrira. Batetik gaixotasun larriak dituzten presoak askatzeko eta zigorra beteta dutenak askatzeko ere eskatzen zuten. Ina, Txurdi, Mitxel eta Niko herriko presoak borrokaldi honetan egon ziren.

05 Xirimiriari eta hotzari aurre eginez: Hogei minutuko atzerapenarekin baina, suzirien hotsak Ekialde Urruneko Erregeen etorreraren berri eman zigan. Oriatik Andatza plazara egin zuten. Geldialdi bakarra egin zuten ibilbidean zehar, Brigitarren komentuan. Jaiotzako Jesus haurtxoa gurtu eta opariak emanaz. Ostean, komentura sartu eta mojekin solasaldia izan zuten.

Azkenik, herriko haurren eskutitzak bildu zituzten Andatza plazan.



08 Antonio Mercero Yarza, musikaren bidez gogoan: Ehun urte bete dira, Antonio Mercero Yarza herriko musikaria jaio zenetik.

Hori ospatzeko, ostiralean Brigitarren komentuan kontzertu berezia eskaini zuten, Ainhoa Mercero sopranoak, Alberto Saez Puente pianojoleak eta Estibalitz Aldekoa arpajoleak.

09 Elurra teilatuan...: Eguraldi iragarpenak egi bihurtu ziren eta ostirala gauean eroritako elurra eta larunbateko haize hotzak eta tenperaturak herritarrei, haurrei, zein helduei elurarekin gozatzeko aukera eman zien. Elur malutak maiz erortzen ikusi ziren goiz osoan zehar, arratsaldean berriz elurtea.

09 Martinez judoko Euskadiko txapel-dun: LOKEko judo-kek ez zuten atsedetik hartu, Gasteizen kadete mailako Euskadiko txapelketan lehiatu ziren eta Esteban Martinez txapel-dun bihurtu zen.

13 Eskolan ere, ingurumenaren alde: Eskola Agenda 21aren konpromiso-akta sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Lasarte-Oriako Udalak eta Landaberri Ikastolak eta Sasota-Zumaburu ikastetxeak. Ikasleak ikastetxearen eta udalerriaren ingurumen-kalitatean eragina duten arazoetan parte hartzea, erabakiak hartzea eta inplikatzeko ohitzea du helburu programa honek.

14 Udal-batzarrak Kooperazio laguntzak ikertzeko batzorde bereziaren xedea aldatzeko mozioa bertan behera utzi zuen: PSE-EEK Kooperazio laguntzak ikertzeko batzorde bereziaren xedea aldatzeko mozioa ez zen aurrera atera oposizioaren aurkako bozkengatik. Abenduaren 15ean aurkeztu ez zuen mozioa zen hau, eta honen bidez, Kooperazioko Batzorde berezia Udalak ematen dituen diru laguntzen jarraipen Batzordea izateko proposatzen zuten.

14 18.000 biztanleetara iritsi da Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udaleko alkateak

bere poza azaldu zuen hamar urte baino gehiagoren ondoren udalerria 18.000 biztanlera iritsi zelako. Arrazoi nagusia jaiotze-tasa da, izan ere, urteko 100 jaiotza ingurutik batzaz bestekotik, aurtun 202 jaiotzetara pasa da.

15 Esnea baserritik zuzenean: Urtarrilaren 15etik Mahala baserriko esnea, bitartekorik gabe erosteko aukera dugu lasarteoriarrok Dorre parke ondoko makinan.

Makinak baserriko litro bat esne euro baten edo litro erdia 50 zentimoren truke erosteko aukera ematen du. Etxekoak, nahiz makinan bertan eskuratu daitezkeen plastikozko edo beirazko botilak erabili daitezke eta bertan azaltzen dira jarraitu beharreko pausuak.



16 Imaz eta Larrañaga atletak txapel-dun: Donostian eta Gasteizen burutu ziren Beterano, Junior, Jubenil eta Kadete

2011 ZORIONTSUA OPA DIZIEGU!

MADD MEIER

KARROZERIAK

ORDEZKO IBILGAILUA

Bankada elektronikoa - Kabina labeduna
Informatizatutako kolorimetria

Certified First KIDEA

Oria etorbidea 10 - Brunet pol., 20-21
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 360 617 - Faxa: 943 366 038
maddmsl@iservicesmail.com

Aseguru konpainia guztiekin baimendutako zerbitzua

ELGI

FISIOTERAPIA ZENTROA

Ibaiondo

Fisioterapia Errehabilitazioa Masajeak Osteopatia

URTEBERRI ON!

Ola Kalea, 12 - behe. ez - LASARTE-ORIA
Tel. / Faxa: 943 370 306 - fisioibaiondo@gmail.com

ANSAUSTI

Taberna

Urteberri on guztioi!

Geltoki kalea 6 • Tel.: 943 361151
LASARTE-ORIA

Barbo arrain ugari hilik agertu ziren Oria ibaian



25 Eguzki talde ekologistak Oria ibaian hainbat barbo arrain ur gainean hilik agertu zirela salatu zuen. Aliriko zubi parean aurkitu zituzten ibai bazterrean. Talde ekologistak hildaren erdian Urnietan izan zen istripu eta lixiba isurketarekin lotzen zuen gertaera. Produktu arriskutsuak garraiatzen zituen kamioi batek beste baten kontra jo eta, horren ondorioz, 10.000 litro lixiba isuri ziren. Produktu horietako batzuk Ziako erreka-ra joan ziren, hau da, Oria bailarara.

22 **Buruntzaldean gidabaimena euskaraz:** Buruntzaldeko Euskara Batzordeek euskararen erabilera sustatzeko beste egitasmo bat aurkeztu zuen *Semaforo berdea: orain gidabaimena euskaraz Eman bidea*. Helburua auto-eskoletan euskararen erabilera normalizatzea eta herritarrek zerbitzua euskaraz eskuratu ahal izatea.



mailako Euskadiko txapelketan emaitza paregabeak eskuratu zituzten Oskar Goikoetxearen mutil eta neskek: Unai Imaz eta Irati Larrañaga Euskadiko txapeldun izan ziren.

19 **30.000 euroko laguntza bidali zuen Udalak Haitira:** Lasarte-Oriako Udalak 30.000 euro bidali zituen Haitira, urtariraren 12n izandako lurrikara jasan zutenei laguntzeko. Astinduak ondasun gehienak suntsitu zituen eta haitiar asko ezer gabe geratu ziren. Amerikako tokirik pobreenetarikoa da Haiti. Larrialdiko laguntza hau Udaleko kooperazio arloak Gurutze Gorriaren bidez bideratuko du.

20 **Moxolo, "bota" den ganadurik handiena:** Etxezarreta Harategiak 1.240 kilotako, eta kanalean 791 pisatu zituen idia salgai jarri zuen. Bere nahira elikatuta, bere nahira ibilitakoa Ataungo mendi magaletan, eta kapritxoz hazitakoa eta Saler arraza frantziararen pedigria dastatzeko aukera izan genuen. Idi gutxi dastatzeko aukera dago egun.

28 **Gipuzkoako 7. postua eskuratu du bola taldeak:** Lasarte-Oriako Ostadar K.F.-ko bola-joko taldeak urtariraren Gipuzkoako taldekako txapelketa jokatu zuen. Joxean Rebe, Joxean Montes, Axier Lasa, Iñaki Salsamendi, Inaxio

Otaegi eta Joxean Lasak osatutako taldeak zazpigarren postua eskuratu zuen, Usurbil eta Legazpian jokaturako bi jardunaldietan 505 birla botata.

29 **Ahots zuriak kantuan:** V. Musika Topaketen barruan, Nayade Abesbatza irundarrak kontzertu paregabea eskaini zuen urtarirlean. Garai eta estilo ezberdineko eliz musika eta folklorea eskainiz "a capella" eta pianoaren laguntzaz.



30 **Haitiri elkartasuna:** Lasarte-Oriako Misio taldeak Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalean afari solidarioa antolatu zuen. Bertan, 4.300 euro eskuratu ziren eta Mesedeetako Amen ordenaren bitartez Haitira bideratu zituzten.

30 **Bazpi eskolaren lehen garaipena pistan:** Buruntzazpi txirrindularitza eskolak gogor dihardu lanean Lasarte-Oriako eta Usurbilgo gaztetxeekin. Horren adibide, 2010. urteko

lehenengo garaipena. Gipuzkoako neguko pistako trofeoa, Xabier Peñagarikano, 2. urteko jubenil usurbildarrena eskutik eskuratu zuten.

30 **Bi udaltzainen ekintza ausarta eta gogoangarria:** Urtarrilaren 30ean arratsaldeko 15:00ak aldera Kale Nagusiko etxe batek su hartu zuen. Iker Ortubia eta Raul Jimenez Udaltzainen erantzun azkar eta ausartari esker ez zen heriotzarik gertatu. Etxebizitzan suhizaileak iritsi aurretik sartu ziren eta kea arnastuta zegoen pertsona atera zuten.



31 **Lokatza artean korrika:** Goitik behera blai eginda eta lokatzez beteta bukatu zuten Donostiako LV. Nazioarteko Krosean parte hartu zuten kirolariak. Ehunka kirolari aritu ziren lasterketan. Horietatik hiru lasarteoriatarrak ziren; Guillemo Huguet jubeniletan, Pili Bodegas eta Gonzalo Sukunza nagusietan.




ARRIESKALLETA ELKARTEA

2011 zoriontsua opa dizuegu !

Kale Nagusia 10 behea
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943-249305



Etxean jaso zuen Ohorezko Goya saria Mercerok

14 Antonio Mercero zuzendariak jaso zuen 2010eko Ohorezko Goya saria, zinemaren baitan osatu duen ibilbide ezin hobearengatik.

Lasarte-Oriako zinemagilea ez zen sari banaketan bertan izan, osasun arazoak direla medio, baina zine Akademiak urtero antolatzen duen galako protagonistetako bat izan zen. Alex De La Iglesia Bilboko zine zuzendari eta Akademiako presidentek aurretik eraman zion saria bere etxera.

04 **Kantuak eta makil hotzak:** Euskal Herriko ohitura zaharrenetarikoa jarraipena izan zuen Lasarte-Orian: Santa Ageda bezperan, koplak atez ate abes-tera aterata ziren hainbat lagun.

Urtero legez, herritarrek ez zuten kale egin eta eskean aterata ziren, eguraldi segurua ez zenez, zeruari begira. Goizean, haizeari aurre eginez, Landa-berri ikastolako txikiak koplak kantuan ibili ziren, arratsaldean Amalur Trikitixa eta Pandero eskolakoak. Baserrietan ere eskean ibili ziren Erketz Dantza Taldeko lagunak. Bertso Eskola eta Xumela korua komentuan egon zen, eta gero herrian zehar.



06 **Latorre atleta Gipuzkoako txapeladun:** Anoetako belodromoan Gipuzkoako txapelketa jokatu zen eta LOKEko atletez gain, Real Sociedad taldeko Iñigo Sevillano eta Scania-Pamplona taldeko Jose Ramon Latorre herritarrek ere parte hartu zuten, baita emaitza pare-

gabeak eskuratu ere. Jose Ramon Latorrek urrezko domina eta brontzezkoa ekarri zituen herrira 200 metrotako lasterketan garaipena eskuratu eta gero. Eta 60 metrotako lasterketan hirugarren geratu zen.

07 **Beltzak-Ostadar Errugby eskola marxan:** Lan askoren ostean eta Ostadar K.F.-ren laguntzaz, azkenean lortu zuten bere helburua Beltzak Errugby taldeko lagunak, errugby eskola antolatzea. Egun honetan ireki zituen ateak Beltzak-Ostadar Errugby eskolak.

08 **Zinema Soziala zikloaren XV. edizioa:** Zinema Soziala zikloko lehenengo saioa ikusteko aukera egon zen Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian.

Danok Kide elkarteak Udaleko Kulturako Sailaren laguntzaz antolatzen duen ekimen honetako beste saioak, hilaren 15 eta 22an izan ziren.

Aurten kulturak gizartearen duen eragina aztertu zuten 3 saiotan, musikak, literaturak eta arteak duten garrantzia ezagutzeko aukera egon zen.

08 **Atsotabarrek langileek subrogazioa sinatu zuten:** Duela urte bete sinatuta egon beharko litzatekeen subrogazioa, azkenean, sinatu zuten. Atsotabar

13 **Mozorro ilara ikusgarria:** Desfile bate-ratuaren bigarren edizioa egin zen. Aurtengo gaia zinema izarren desfilea, eta bertan ehunka herritar eta taldek parte hartzeaz gain Oriako txarangak ere kaleak alaitzeko asmoz.



14 **Euskal Inauteriak:** Igandean berriz, euskal inauteriaren txanda izan zen. Ohiturari jarraituz, herriko kaleetan zehar dantza egin eta gero, artza ere erre Kale Nagusian.




zahar egoitzako langileak eta Clece enpresa akordio batera iritsi ziren herriko kaleetan langileak hainbat protesta egin eta gero.

12 **Auto-zirkuitua gogoan:** Herriko auto-zirkuituari eta bertan egindako lasterketei buruzko argazki erakusketa inauguratu zen kultur etxean. Erakusketako 85 argazkien bitartez, Donostiak, Gipuzkoak eta Euskadik 1923. eta 33. urteen artean izandako garrantzi turistikoaren irudi ahazteaz gain, gure herriko historiaren zati bat ere ikusi eta ezagutu zuten gazteek.

12 **Jose Luis Navaroren "Relato Breve" liburuaren aurkezpena:** Jose Luis Navarro Armendariz herritarrek idatzitako "Relato Breve de Lasarte" liburuaren aurkeztu zen. Bertan, XX. mendean Lasarte-Orian gertaturiko batzuk aukeratu eta herriko familia batek horren inguruan bizitakoa kontatzen digu.

12 **PSE-EEko egoitzan Aresekin solasaldia:** Eusko Jaur-laritzako Barne sailburua den Rodolfo Aresen Lasarte-Oria bisitatu zuen. Ekimena aldiro eta herri ezberdinetan PSE-EE alderdiak antolatzen



SUGATE

SUKALDEAK

2011 zoriontsua opa dizuegu !!

FORMA
La compra inteligente

7 GARANTIA WARRANTY

12
Año de garantía

vegasa
Más soluciones y mejores precios

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Ana Urchueguia Euskadiko delegatua Txile eta Perun



23 Ana Urchueguia alkatea Euskadiko delegatu moduan Txilera eta Perura joango zela jakin arazi zuen, eta 2011ko hauteskundeetara ez zela hautagai moduan aurkeztuko. Hala ere, inork susmo txarrik ez izateko eta erabakitzeko dauden kontu batzuk hala nola, inbertsio planaren aurkezpena edo Somotoko ikerketa, amaitu arte zinegotzi bezala jarraituko duela azpimarratu zuen. Gauzak horrela, hurrengo hauteskundeak arte, Jesus Mari Zaballosek, Gazteria eta Jaen batzorde buruak, bere lekua hartuko zuela aditzera eman zuen.

dituen mahainguruen baitan kokatu zen. Mahai-inguru honetan gai ezberdinak jorratu ziren.

15 **Terrorismoaren biktimen oroimenezko ekitaldia :** Lasarte-Oriako Udalak aitoren instituzionala egin zien terrorismoaren biktimei. Alkatetzatik adierazi zutenenez "plaka honen bitartez, biktimen adorea eta zorigaitzaren aurrean izan duten duintasuna aditzera eman nahi da".



18 **Jalgi beteta bertso saioan:** Bertso-aldi bikainak eskaini zituzten otsailaren 18an, oraindik inauterietako moxorroa kendu gabe zuela Jalgik, Jon Martin, Xabier Silveira, Unai Muñoz eta Ane Labakak. Guztiek erakutsi zuten puntako bertsolariak direla eta bikain kantatzen dutela. Jalgin, Aitor Atxega eta bere gitarraren laguntza azpimarragarria ere izan zuten bertsolariak tarteka eta oso ondo moldatu ziren.



19 **X. Saharako maratoina 85 euskaldun doaz:** Tomas Arrutik eta Gorka Lasak iaz Saharako basamortuan maratoina egin eta hango egoera ezagutu zutenetik proba honi bultzada eman eta gehiago izateko erronkari heldu zioten. Helburua lortu zuten, iaz baino bost aldiz euskaldun gehiago izan baitziren Saharan otsailaren 19tik 26ra. Iaz 17 lagun izan ziren, aurtun 85 abiatuko dira.

20 **Isiltasunez gogoratu zuten Isabel Velez:** Otsailaren 19an Oria auzoko Zelaide kalean Isabel Velez herritarrek heriotza aurkitu zuen, ustezko hiltzailea den bere semeak labankadaz egindako zauri larrien ondorioz. Lasarte-Oriako Alkatetzak deituta, hainbat herritar bildu zen Udaletxe aurrean, hilketa gaitzesteko.

20 **450 tona elikadura Sahara-ra bidean:** VI. Sahararen Euskal Karabana atera zen Gasteizetik. Sahararen herriaren lagu-

nak taldeak jakin arazi zigunez, aurtun 450 tona bideratu ziren Saharako kanpamentuetara. Honela, iaz baino 50 tona gehiago bildu ziren eta honek Euskal Herriak Saharako herriarekin duen elkartasuna erakusten du.



21 **Ibarburu igerilaria laugarren Kutxa sarian:** Buruntzaldeko Igeriketa taldeko

Iñigo Ibarburu, Unai Bueno, Garazi Alkorta eta Inhar Lizarzak Kutxako gaztetxoek Elkarte X. Igeriketa Sarioko finalean parte hartu zuten.

Emaitzarik onena Iñigo Ibarburu infantil mailako igerilariak lortu zuen. Final nagusian domina eskura izan zuen, baina laugarren iritsi zen.

28 **Giro polita Andaluziaren egunean:** Andaluziaren egun handia da erkidego horretan bizi diren biztanleentzat, baina, batez ere, beren herrikan kanpo bizi diren milaka andaluzentzat. Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak hainbat ekitaldi antolatu zituen Andaluziaren eguna giro onean ospatzeko.

27 **Ziklogenesi lehergarriaren arrastoak:** Lasarte-Orian uste baino indar gutxiagorekin pasa zen ziklogenesi lehergarria, hala ere, haize ufadak kalteak eragin zituen herrian. Larunbat arratsaldean, Pablo Multiozabal kaleko Urdaneta eraikineko laugarren solairu baten balkoiko burdin eta kristalak erazi eta kalera jaurti zituen. Zorionez momentu horretan ez zen inor bertatik pasa, eta tragedia bihurtu zitekeena ziklogenesiaren ondorio isolatu batean geratu zen.



SAN JOSE-OLAIZ

Urteberri on opa dizuegu !

• Kamioien txasia konpontzeko oinarria.

• Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.

• Industriako ibilgailuen konponketa.

Ordutegia: 8:30 - 20:30

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508

MEKANIKAKO
TAILERRA

WABCO

DIMETAL S.A.

IVECO

ZERBITZU OFIZIALA



LOMBARDINI

Jesus Maria Zaballos alkate berria

05 Jarduneko alkateak Iñaki Mugikak, martxoaren 5ean Batzarra ireki eta PSOE-EEko alderdiko hautagaia Jesus Mari Zaballos izango zela jakinarazi zuen.

Oposizio alderdiei ordezkariak aurkeztzen zuten galdetu eta hauen ezezkoa izan ostean, Udalbatzarrek Jesus Zaballos alkate bezala onartzeko bozketa egin zuen.

Zinegotziak banaka, idazkariak deituta bere bozka egin eta zortzi boto izan ziren Zaballosen alde, beste bederatziz, aldiz, zuriak. Hala ere, PSOE-EE hauteskundeetan zerrenda bozkatue-na izanagatik, bere ordezkariak alkate kargua lortu zuen.

Karguaren zina egin zuen Zaballosek eta Ana Urchueguiak aginte makila eman eta banda jantzi zion.

01 Atsokabarreko zahar egoitzako eraberritze lanak hasi ziren: Hiru onura garrantzitsu izango ditu egoitzak: zentroaren erreforma orokorra, Psikogeriatrako Unitate baten sorrera eta Eguneko Zentroa handitzea.

01 Ana Urchueguiak uko egin zion alkate karguari: Urchueguiak ez-ohizko martxoaren 1eko Udalbatzarrean bere karguari uko egin zion. Izan ere Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren eginberrak alkate lanak suposatzen duenarekin bateraezina dira.

02 Ane Labaka bigarren Abriasarian: Anek saio borobila egin zuen Algotan jokatu-tako Abria Sariaren 9. edizioan, ia akatsik egin gabe bertso ederrak josi zituen. Bi bertsolariren arteko buruz burukora iritsi zen eta saio gozagarria osatu zuen txapel-dun izan zen Jone Uriarekin batera.

06 Calçotada egin zuten Buruntz-Azpin: Buruntz-Azpi elkarteak egin zuten Calçotadan ehun lagun elkartu ziren, 70 heldu eta 30 haur. Antolatutako bazkarian, calçot edo tipulinak eta arkumea jan zituzten brasan. Gironako Porqueres herritik etorritako Josep eta Maria bikoteak ekarri

zuten Buruntzazpi kanpoan erre zituzten Calçotak. Bigarren urtez antolatu da eta, tradizio bihurtuko ote da laster?

07 547.607 euroko saria Arkupe tabernan: Lasarte-Oriako batek egindako kinielan 15 partidaren emaitzak asmatu zituen zutabe batean eta 14 bestean. Horri esker, 547.607 euroko saria eskuratu zuen.

08 Berdintasunaren alde: Emakumeen Nazioarteko Egunean publizitatean eta lanean emakumeen papera salatuko zuten Zentro Zibikokoek eta Udalak adierazpen ofiziala argitaratu zuen.

08 Elurra berriro ere: Gauean ederki bota zuen, errepi-deak izan ezik, gainontze-ko gutzia elurtuta agertu zen goizean. Errepidean ez zen arazorik sortu. Etxeko txikien gozamenerako eskolarako bidea elur bolak botatzen egin zuten, ez ordea buelta, goizean zehar elur gehiena urtu egin baitzen.



09 Lan istripuen salaketa egin zuten LABek: LAB sindikatuak deituta, hainbat herritar bildu ziren Lasarte-Oriako udaletxearen aurrean. Lan istripurik ez, erantzunik gabe! lelopeko pankartarekin. Salaketa martxoaren 5ean, lasarteoriatar baten heriotzari erantzuteko modua izan zen. Izan ere, Alegian lanean ari zela horma batetik jausi eta ospitalean hil zen.



10 LTD informazio puntua Brigitarretan: Lurreko Telebista Digitalari buruzko informazio puntu mugikorra iritsi zen herrira, Brigitarren komentu ondora. Igorpen analogikoen etetearen berri eman eta era berean, modu errazean teknologia berriari nola egokitu azaldu zuten. TDTak eskaintzen dituen abantailak ezagutu eta dudak argitu zituzten.

11 Kudeatuzeko lehen bilera burutu zen: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeatuz

programaren baitan Lasarte-Oriako Udalak duen Plazaolako landa-parkearen partehartze prozesuari hasiera eman zitzaion Manuel Lekuona kultur etxean.

Proiektuari buruz herritarrek dituzten beldurrak, zalantzak eta proposamenak entzun ahal izan ziren bertan.

11 Poltsa ekologikoren alde: Herriko harakinek, udalaren laguntzarekin, egun honetatik aurrera material birziklatuarekin egindako 3.000 poltsa ekologikoak banatu zituzten. Irailetik zenbiltzaten poltsak murrizteko beharra ikusten, eta hondakin gutxiago sortzeko poltsa ekologikoak banatzea otu zitzaion.

12 Michelinen amiantoarekiko politika salatu du LABek: Michelin Lasarteko LABeko sail sindikalak, enpresako zuzendaritzak amiantoarekiko duen jarrera salatu zuen, "Lasarteko enpresa zuzendaritzari amiantoaren egoeraren berri ematea eskatu genion. Amiantoarekin kontaktua eduki lezakeen lanposturik ez dela egon, izan zen".

13 Udal Musika Eskolako trikitilariak Haitiren alde: Herriko eskolak Gipuzkoako musika eskolek Lezon Haitiren alde antolatutako egitasmoan parte hartu zuen. Kalejira eta Gipuzkoako Musika

BIZKER
IMPRESION DIGITAL

2011 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

- Inprimategi digitala
Txartelak, Fakturak, Albaranak, Zozketa-txartelak, Kartelak, Katalogos etab.
- Formatu handiko kartelak eta Argazkiak
Standak, Erakusketa azokak, Ekitaldiak
- Kanpoko eta barruko errotulazioa
Furgonetak, Kamioiak, Toldoak, Saltokiak, Museoa...

Geltoki Kalea, 9 - Tel.: 943 36 20 61 - Lasarte-Oria

JUAN IGNACIO

ILE APAINDEGIA

URTEBERRI ON!

ORDUTEGIA

Astelehenetik asteartera
08:30 - 13:30
16:00 - 20:00

Larunbatetan
08:00 - 14:00

Geltoki kalea 19 • Tel.: 635 707544

adats

ile-apaindegia

2011 zoriontsua opa dizuegu!

Geltoki kalea 3
Mobila: 600 523988
LASARTE-ORIA

Osasun zentro zaharra desagertu da



17 Urte asko egin ditu herrian, gure artean. Batzuetan nahi baino gehiagotan joan izan gara bertara. Gaixo egon garenean, hara hurbildu gara momentuko ego-nezina edo gaitzak sendatzeko. Martxoaren 16an, Lasarte-Oriako Osasun Zentro zaharra botatzeari ekin zioten. Utzitako partzela horretan, etxebizitzetara egingo zaie lekua aurki. Egu nhotatik aurrera herriko osasun zentro zaharrak gure oroitzapenetan eta argazkietan baino ez du tokia izango.

Eskoletako abesbatzak batu zituen kontzertuan hartu zuten parte.

13 Kick Boxing bizi-bizia Michelinen: Lehenengo aldiz Michelingo frontoian Kick Boxing jaialdia antolatu zen. Hamaika borrokaldi egin ziren eta horietan, sei herritarrek parte hartu zuten; Iban Valverde, Imanol Aizpuru, Iñigo Garcia, Aitor Iturrarte, Eneko Hernandez eta Erik Valverde Chino. Herritarren artean garaipen bakarra Erik Valverdek eskuratu zuen.



13 Zubizarreta eta Curiel borrokako Espainiako txapelak: Murtzian ospatu zen kadete mailako Espainiako borroka txapelketan, Amaia Curiel eta Leire Zubizarreta Espainiako txapelak bilakatu ziren, eta Mario Garridok, brontzea eskuratu zuen.

14 240 haur lasterka Euskal Krosean: Giro bikaina izan zen Landaberri ikastolak

antolatzen duen Euskal Krosean. Hamar urte dira, Euskal Krosak Eneko Kastroren oroimenez bihurtu zenetik, horregatik atleta zenaren sendiak ikastolako Guraso elkarteari esker ona adierazi zien oroigarri baten bidez.

15 Gotzon Huegun herriko eskultoreak Camille Claudel-en omenezko XX Eskultura Jaialdian parte hartu zuen: Alsazian, La Bresse izeneko herri menditsuan, izan zen Gotzon Huegun, Lasarte-Oriako eskultorea, emakume baten irudia zizelkatzen, mundu osoko beste 24 eskultoreekin batera, eta ohorezko diploma jaso zuen gainera, epai-mahaikoek hiru lan onenen artean aukeratu zuten.



20 Lore eskaintza Elesperen omenez: Froilan Elespe Lasarte-Oriako alkateordea hil zutenetik 9 urte pasa dira eta martxoaren 20an, PSEE alderdiko kideek

24 Negoziaketa jangle-tako greban : Sasoe-ta-Zumaburu ikastetxeko jangelan izan zuen eragina bakarrik jangelen grebak. 2009. urteko apirilean hasi ziren istiluak eta 2010eko martxoa bitartean 15 egun greba izan ziren orotara. Garai honetan negoziaketei hasiera eman zitzaizen: soldatak Jaurilaritzako langileen parek-tzea; langileek bere ardurapean haur gutxiago izatea; formakuntza ikastaroak lan orduen barruan eta ordutegia luzatzea lana lanaldiaren barruan egiteko.



Elesperen oroimenezko lore eskaintza egin zuten hilerrian.


20 Fadoa eta euskal doinuak elkarkidetzen: Alboka Abesbatzak Portugalera egin zuen bidaia. Euskal doinuak eraman zituzten Leiria eremura. Baina abesteaz gain, turismorako astia ere izan zuten eta Portugalgo hiriburua, Lisboa, Fatimako santutegia eta Batalhako monastegiak ezagutu zituzten.

datuen arabera langabezia tasa ehuneko 15ekoa zen gure eremuan.



25 Lanpostuak alarma gorrian: Buruntzaldeko enpleguaren gainbehera salatu zuen LAB sindikatuak eta horren harira, enplegua suntsitzearan aurkako mar-txa antolatu zuen langileriak eta lan esparruak Buruntzaldean bizi duten gainbehera salatzen. Orduan, LABen

26 Nejpako alkatesa herrian bisitan: Wanda Calderon, Nejpako alkatesak gure herria bisitatu zuen. Lasarte-Oriak El Salvadorreko herrialde honetako pobrezia eta egoerari buelta emateko asmoz, gazteen hezkuntza bulatza-ten duen Froilan Elespe proiektua du martxan.





Saustatxo

Kultur Elkartea



2011 zoriontsua opa zizuegu !

Uzturre plaza 8 • Tel.: 943 364942 • 20160 LASARTE-ORIA

Sasoetako Brigada Berdea



09 Hamar lagunek osatzen zuten 2009-2010 ikasturtean Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Brigada Berdea. 3. mailatik hasi 6. mailara bitartean gela bakoitzeko bi ordezkari ziren ingurumena zaintzeko ardura duen patruila honetan.

Agenda 21 ekimena aurten jarri zuten martxan Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastolarekin batera, uraren gaia landuz. Lehenik, ikastolako horniduren eta kudeaketaren diagnostikoa egin zuten gauzak nola dauden ikusteko eta gerora ondorioak atera eta jokabide egokienak bultzatzeko.

01 **Aste Santua fedez biziz:** Batzuk herritik kanpo, besteak herrian bertan. Oporrak dira batzuentzat, baina ezin da ahaztu egun hauen esanahia. Herritarrek fedez bizi zituzten hain egun seinatuak, Ostegun Santuko Meza Nagusiek Jesusen apostoluekin ospaturiko azken afaria ekartzen digu gogora; Ostiral Santu egunean berriz Jesusen pasioa, larunbat gauean eta Pazko igandean Jesusen berpizkundearengatik otoitz egiten da.

08 **Intertzeptore orokorreko lanen bigarren fasea :** Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako proiektua garrantzitsuaren bigarren fasea jarri zen martxan. Loiolako araztegiarekin konektatuko du gure sameamendusarea. Ez da Oria ibaira isurketarik egingo eta ibaiaren kalitatea eta ingurunea hobetuko da.

10 **Hernandorena saria Labakarentzat:** Ane Labaka Lasarte-Oriako bertsolaria nagusitu zen Muskildiko Pusunpesean egin zen Hernandorena sariko afari-finalan eta berak jantzi zuen bertsolari gazteen arteko txapela.

15 **Markel Olano eta Eneko Goia herrian:** Zure Herria ekimenaren barruan Markel

Olano diputatu nagusiak eta Eneko Goia Bide Azpiegiturako diputatuak kultur etxean izan ziren, Lasarte-Oriako herritarrek edota elkarte-erakundeetako ordezkariak egindako galderei erantzuten.



18 **Buruntzara iteera eta babarrun jana:** Arrieskallera Elkarteak mendi iteera antolatu zuen, Buruntzako I. iteera hain zuzen ere. Goizean elkartetik atera eta Buruntza mendian gora gurutzaraino joan ziren. Ibialdiaren ostean, indarrak berreskuratzeko babarrun jana egin zen elkartean.

19 **Estudio del Pintor eskolako ikasleen lanak:** Estudio del Pintorreko ikasleak egindako lanak ikusteko eta disfrutatzeko aukera egon zen. 40 koadro inguru jarri ziren ikusgai Manuel Lekuona kultur etxean Estudioan ari diren ikasle

12 **Oreindik taldeak Leioako X. Maketa Lehiaketan saria eskuratu zuen:** Lasarte-Oriako Oreindik taldeak X. Leioa Maketa Lehiaketan Euskara zerbitzua saria irabazi zuen. Zerri hegalaria abestiarekin Euskarazko abesti onenaren saria jaso zuen.



2009an sortu zen talde honen lehenengo saria da hau. Rock, funkya, pop, metal... estilo desberdinak nahasten dituen maketa dute. Hizki pertsonalak eta gertukoak eta une, zein ideia desberdinen isla direnak aurkezten dituzte haien abestietan.

gehienen obrak ikusi eta beren eboluzioa antzemateko aukera egon zen.

19 **Kamioi batek karga galdu zuen N-I errepidean:** Kamioi batek istripua izan eta karga galdu zuen N-I errepidean, Oztaran auzo pareko zubian. Karga, hau da, garbigailuak, azpian dagoen Oztaran auzoko errotondan erori ziren. Zorionez ez zen zauriturik izan.

21 **II. Udaltop jardunaldiak :** Euskal Herriko Euskara Zerbitzuen II. Topagunea antolatu zen Lasarte-Orian. Herri des-

berdinetako euskara teknikariek *Nerabeen aisia eta lagunartea* gaia jorratu eta Zer eta nola egin daiteke udaletatik nerabeek aisia eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko? Galderari erantzuna ematen saiatu ziren.



2011 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU I



Sagardotegi kalea • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361534



Rafa Diez askatu zuten



26 Aske utzi zuten Rafa Diez, LABeko idazkari nagusi ohia. Bateragune, ezker abertzaleko zuzendaritza berria sortzea egozten diote Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epaileak aske utzi zuen 30.000 euroko bermea jarri ondoren eta politikan aritzeko baldintzak ezarrita. Herriar ugari bildu zen Rafa Diez ongi etorria egiteko. Lehenengo besarkadak kalean jaso ondoren, Xirimiri Elkartera joan ziren ospatzera.

15 Egunkarikoak libre:

Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga Egunkaria-ko auzipetuak libre utzi ditu Auzitegi Nazionalak euskaraz argitaratzen zen egunkaria itxi eta zazpi urtera eman duten epaian. Fernando Furundarena Egunkariaren auzi ekonomikoan auzipetua dagoen lasarteoriatar-rrak adierazi zigan epaia garrantzitsua dela, ez dagoela ETA eta Egunkariaren arteko loturarik, argi frogatu dela itxiera inkonstituzionala izan zela.



tzuarraren eskutik Lasarte-Oriaren inguruan aurkitu ditzakegun sendabellar-ak ikusi, ezagutu eta jaso zituzten. Jasotako belar guztiekin bazkaria egin zen.

24 Itxialdia presoan alde San Pedro elizan: Herriko presoan alde hilaren 24tik 25erako gaua San Pedro parrokiaren igarotzen zuten hainbat lasarteoriatarrek. Gau berezia izango zen, batetik presoek ekitaldi honetarako propio idatzitako testuak irakurriko ziren eta bestetik hainbat hitzaldi, bideo emanaldi eta beste ekitaldi osatutako egitarau zabala burutu zuten.

25 Urtzi Telleria harri-jasotzailerak saio bikaina egin zuen Gorostidi harriarekin Aduan: 150 kiloko zilindro zaharra 13 aldiz altxatu zuen eta 80 kilotik azpiko artean txapeldun izan zen. Ondoren 185 kiloko zilindroa altxatu zuen Telleria II.k, sekula jaso duen harriarik astunena, "indartsu itzuli naiz eta pozik nago".

27 Esne gaingabetua Kale Nagusiko esne makinan: Mahala enpresak urtarri-lean jarri zuen martxan eguneroko esnea hartzeko makina gure herrian eta egun honetan zerbitzua zabaldu zuen. Esne gaingabetua zerbitzatzen

hasi zen kontsumitzaileen eskaerari erantzunez.

30 "Esfortzu eta sakrifizio urteak izan arren, esker onekoak izan dira": Mila-gros Etxaniz Begiristain Aburuza denda itxi eta erretiratu zen. 38 urtez herriaren herriararren hozkailuak eta armairuak betetzen igaro eta gero, bizitzaz disfrutatzeko momentua iritsi zitzaion.

30 Fernandez udaltzaina, Espainiako txapeldun: Eneko Fernandez, Lasarte-Oriako Udaleko Udaltzaina, txapeldun izan zen Polizia eta Suhiltzaileentzako Espainiako Txapelketa txirindularitza-ko lineako proban eta erlojupeko proban bigarren izan zen. Apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean jokatu zen lehiaketa Vilasecan, Tarragonan, eta donostiarrak txapelketa honetan parte hartzen zuten lehen aldia zen.



21 Salsamendi hirugarren bola-jokoko txapelketako saioan: Michelinen jokatu zen Boloetako Lehendakari Txapelketa-ko saioan 50 lagunek parte hartu zuten. Legazpiko German Gereño irabazleak, 48 txirilo bota zituen eta Iñaki Salsamendi lasarteoriatarra hirugarren postuan sailkatu zen.

tailerrak, Amaraun ludotekako txokoa, Ezti, Lur eta Markoren ekitaldia eta Txorro eta Morroren dantzaldia.



24 Ume ugari Amaraun jaialdian: Abentura pila bat eta giro ezinhobeia egon zen Amaraun jaialdiaren ospakizunetan. Sei orduz, mila dibertsio! Goizetik arratsaldera arte ekintza ugarietaz disfrutatzeko aukera egon zen Loidi Barreneko frontoi berrian. Puzgarriak,

24 Sendabelarren bigarren ikastaroa: Sendabelarrei buruzko bigarren ikastaroa antolatu zen. Nekane Martiarena oiarrak



*Gustuko al duzu abestea?
Zatoz gure artera!*

Tel.: 943 365145 / 943 363656 • LASARTE-ORIA

Urteberri on!

ALBOKA



ABESBATZA
LASARTE-ORIA



Bertsoak dantzan

08 Ttakuneko bertso eskolako antolatzaileek Lekuona Hotelean bihurtu zuten aurten kultur etxea eta Landaberrir Antzerki Taldeko kideak izan ziren Hoteleko langile. Dantzan aritu zirenek bertsoari bidea zabaldu eta bertsolariek dantza egin zuten Lekuona Hoteleko ikuskizunean. Egaña, Paya, Labaka eta Muñoa bertsolariek bertsotan dantza egin zuten. 130 herritarrek eta herriko elkarteek hartu zuten parte eta 300 ikusle inguru bildu ziren kultur etxean emanaldiaz disfrutatzen.

01 Amaia Curiel judoka sanbo txapelduna junior mailan: Alacanten, junior mailako Espainiako sanbo txapelketan, urrezko domina Amaia Curielek eta brontzezkoa Mario Garridok, LOKEko kirolariak eskuratu zituzten.

Gorka Aristegik zuzentzen dituen infantil eta kadeteek Gasteizko San Prudentzio judo txapelketan borrokatu ziren. Abayuba Gonzalez izan zen bere mailan txapelduna, Asier Zubizarreta, Josu Olmos eta Fermin Balda bigarren geratu ziren eta Imanol Gonzalezek brontzea eskuratu zuen.

02 Atleta gazteak lehia bizian: Maiatzaren 2an Michelingo kirol gunera hurbildu zirenek, hainbat kirol ikusteko aukera izan zuten. Futbola, Lasarte-Oria-Astigarraga herriarteako pilota norgehiagoka eta atletismo pistan, infantil mailako proba konbinatuak Gipuzkoako txapelketa, X. Eneko Castro Omenezkoa. Eskola ezberdinetako 55 bat neska-mutil bildu ziren.

03 Munterri-AEK-ko ikasleak Elea-alea saioan: Munterri-AEK euskaltegiko talde batek Euskadi Irratiko Elea-alea lehiaketan parte hartu zuen.

Hizkuntza ikasteko ariketa didaktikoak erantzuteaz gain haien bizipenak kontatu zituzten. Saio honek euskara ikastea gustagarri egitea du helburu.

03 Marrazki eta Pintura erakusketak: Lasarte-Oria auzo elkar-
teak XXIV. Marrazki eta Pintura erakusketak zabalik jarri zuen kultur etxean maiatzaren 14ra bitartean. Oskar Tena irakaslearekin egindako lanak erakutsi zituzten ikasleek.

05 Isuna txakurren gorotza jasotzen ez duenari: Maiatzaren 10etik aurrera Udalak arau berri bat jarri zuen martxan, txakurren gorotzak herri-bidetik zein lorategi publikoetatik jasotzen ez dutenak isuna jasoko zuen. Zigorrak 30 euro eta 300 euro bitartekoak izatea erabaki zuten.

07 "Solasaldia kolore ezberdineko diskoa": Iñigo Peña, Juanan Aizpurua eta Josu Ayarzaguenak disko berria proposatu ziguten, *Solasaldia*. Musika koloretsua eta oso era interesgarrian aurkeztua erabiltako instrumentuei esker. Peña bere barneko sentimenduak musikaren bidez erakusten eta transmititzen saiatu da.

08 Lazkano eta Arluziaga txapeldun palan: Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga erraz nagusitu ziren XVI. Pala txapelketako finalean. 30 eta 11 irabazi zioten Iñigo Huegun eta Patxi Kastrok osatu zuten bikoteari eta zazpigarren urtez segidan lortu dute txapela. Erritmo biziko finala ikusi zen Michelingo frontoian.

08 Juan Mari Cerezo gogoan: Omenaldi eta kontzertu bikaina eskaini zioten lagunek 40 de Fiebreko gitarrak-joleari.

Cerezoren gitarrak leku berezia izan zuen Andatza plazako oholtzan. Bere anaiak gorde duen gitarra eta bere zorroa, bateriaren ondoan izan ziren kontzertuak iraun zuen bitartean. Duela zazpi urte auto istripuz hil zen gaztearen taldekideak berriz elkartu eta garai hartan atera zuten maketako sei abestiak jo zituzten.



09 Jende ugari Azkorten: Urtero legez, Santa Krutz egunaren ondorengo lehenengo igandean erromeria antolatu zuen Ttakun Kultur Elkar-
teak Azkorte-
ko ermitan. Egu-
raldiak ateri eutsi bazion ere, haizea oso zakar ibili eta eguerdi aldera arte ez zen baretu. Halaber jende ugari bildu zen.

10 Gizarte balioak eta tolerantzia VII. Balioetan Hezi: Urtero moduan, Danok Kide elkarteak Balioetan Hezi jardunaldi arrakastatsua antolatuko zituen maiatzaren 10etik 13ra Manuel Lekuona kultur etxe-
ko hitzaldi aretoan.

10 Allerruko gasolindegia 1930 hamarkadaren itxurarekin: Ford A kategoriako 30 kotxek,

13 Ahozkotasanaren jaialdian umoretsu: Landaberrir eta Sasoetan bertsolaritza ikasten duten haurrek kantatu zuten kultur-etxean ahozkotasanaren festan. Unai Muñoa herriko bertsolaria arduratu da ahozkotasanaren inguruko baloreak ikasleei transmititzen. Guztira 250 bat haur inguru igo ziren oholtzara taldeka bertsoak kantatzera. Talde bakoitzak hamar bat minutuko saioa egin zuen, gai bati buruzko seina bertso kantatu zituzten, agurrarekin hasi eta amaituz. Umorea nagusi bertsoak kantatzen. •



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Kale Nagusia 21
Tel.: 943 362073

URTEBERRI ON!

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Euskadiko Kutxa

Herritar ugari Zapore eta Artisautza azokan



22 Eguraldi paregabea aprobetxatuz, Andatza plaza inguruan herritar ugari ibili zen Zapore eta Artisautza azokan. Elikagaiak eta artisautza produktuak, hala nola, egurrezko irudiak, bitxiak, Errioxako eta Nafarroako kontserbak edo euskal ogia eta goxoko eskuragarri egon ziren Montajes y Servicios JC2000 enpresak, Udalaren laguntzaz, antolatutako azoka berezi honetan.

15 Hamaika Telebista sintonizatzen: Euskara hutsezko telebista maiatzaz geroztik ikus daiteke Lasarte-Orian. Euskalduna eta euskaltzalea, gure hizkuntzaren normalizazioaren prozesuarekin konpromiso estua harturik jaio zen Hamaika Telebista sortzeko egitasmoa. Euskaltel bidez 911. katean eta LTD bidez 23 katean sintonizatzeko aukera dago. •



eta 1928 eta 1931 bitartean sortutakoak, Lasarte-Oriako gasolindegia hartu zuten. 30 kotxe klasiko hauek, igandean Donostiatik abiatutako Protagonistas-Punto Radio rallyko XIX. edizioko partaideak genituen.

12 CNTren mendeurrena eta utopian bizitzea: CNT sindikatuak bere 100. urteurrena ospatu du aurten. Ospakizunak Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan egin ziren.

Xabier Erauzkinek anarkosindikalismoaren eta CNT sindikatuaren historia laburtu zuen, lehenengo mugimenduak, sindikatuaren sorrera, ilegalizazioak eta egungo egoerari buruz ere hitz egin zuen. Ostean, Vivir la utopia dokumentala ikusi zuten bertaratu zirenak.

15 Ostadarreko kadete neskak Kopako txapeldunak: Maiatzaren 15ean emakumezkoen KDT F-11ko neskak kopako txapeldun bilakatu ziren, nahiz eta fase honetako partida bat geratzen zitzaizen oraindik. Michelingo kirol gunean, Gorengo Erregionalen partidaren atsedendian, Gipuzkoako federazioko arduradunek taldeari kopa eman zioten.



15 Dantzaz Blai emanaldi ikusgarria: Antzerki eta Dantza hamabostaldiak hasiera bikaina izan zuen dantzarien ikuskizunarekin. Saioaren bukaera talde guztiak dantzan Eskolaren abestia estreinatuz. Hamabost egunetan antzerkia eta dantza izan ziren herrian protagonista. VIII. Antzerki eta Dantza Astean ia 40 taldek parte hartu zuten parte.

17 Ospitaletara autobusa martxan: Maiatzaren 17an jarri zen martxan Lasarte-Oria, Usurbil eta Zubietako Ospitaleekin lotuko dituen autobus zerbitzua eta beraz lasarteoriatarrek aspalditik eskatzen ari zirena martxan jarriko zuen Foru Aldundiak.



17 Zor ekologikoa aztertzen: Jende gutxi samar bildu zen Ekologistak Martxan proposatutako Zor ekologikoari buruzko Ekozinemaldian. Kultur etxeko hitzaldi aretoak Coconut Revolution eta Impactos de la Forestación en Uruguay filmeak hartu zituen. Proiekzioak amaitu eta bertaratuakoein solasaldi aberatsa izan zuten antolatzaileek.

20 Punto Radio irratia herrian: Juan Mari Mañeroren Protagonistas Gipuzkoa eta Tito Irazustaren Deporte y punto irrati saioek Lasarte-Oriatik egin ziren maiatzaren 20an.

Ama Brigitarren komentu aurrean jarri zuten Punto Radio irratioko kamioia eta bertara herritar ugari hurbildu zen.

20 Norbega/Coca-Cola saria Maitane Reberentzat: Maiatzaren 20an Bilboko Itsasadarren Museoan, Euskarazko 2009-2010 Narrazio Laburren Saria sari banaketa izan zen. Landaberri BHI Lasarte-Oriako ikastetxeko Maitane Rebe Igaruak jaso zuen narrazio labur onearen saria Andres Urrutia Euskaltzaindiako buruaren eskutik.

22 ISU Leihoak irabazi zuen berriro Areto Futboleko XXVII. txapelketa: Finala ISU Leihoak eta Izkiña tabernaren artean jokatu zen eta iaz bezala ISU izan zen garaile. Finala oso berdindua izan zen, borrokatua eta tentsio handikoa.

Partida berdinduta bukatu zen eta luzapenera joan behar izan zuten. Luzapenean ez zuten golik sartu eta azkenean penaltietara erabaki zen partida. 6 jaurtiketatik ISUren 5 sarean sartu ziren eta Izkiñak 4 sartzea lortu zuen.

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak, S.L.

Palazio etxea, Laurgain auzoa • AIA
Tel.: 943 132893 / 830808
Mobila: 656 782999



URTEBERRI ON!



Lasarteoriatarak Euskadiko Kirol Jokoetan

29 Euskadiko eskolarteko Kirol Jokoak burutu ziren maiatzak 29 eta 30ean, Barakaldon. Bertan, infantil mailako hiru lasarteoritarrek parte hartu zuten emaitza onak lortuz. Ane Galardik, luzera-jauzian lehengo postua eskuratu zuen ia 5 metroko jauziarekin. Bestetik, Iñigo Ibarburu igerilariak lau probatan parte hartu zuen eta 4x100m libreetan Gipuzkoako taldearekin irabazle izan zen. Paula Uli gaztetxoa teniseari lehia zuen. Finalerdietan sartu zen, baina ez zuen zorte onik izan eta, azkenean, laugarren postua eskuratu zuen. •

22 Gimnastikako infantil taldea bigarren Udaberriko Torneoan: Maiatzaren 22an, gimnastikako Udaberri Torneoako bigarren saioa burutu zen Astigarragako kiroldegian. Infantilek lan ona egin eta 1. postua lortu zuten jardunaldi honetan. Hala ere, bi topaketen batura egiten denez, orokorrean 2. postua eskuratu zuten.

22 Lasarteoriatarak Gipuzkoako txapelkunak: Maiatzaren 22an, LOKEk Gipuzkoako eskolarteko banako tenis txapelketa antolatuta zuen eta bertan Lasarte-Oriako gaztetxoek garaipen ugari lortu zituzten. Saioa Mendiluze eta Iker Hernandez herriarrak alebin mailako txapelkun berriak dira. Infantil nesketan ere, herrikoa den Paula Uli-k lortu zuen.

23 "Lanean serio gustura ibili nintzen": Hirugarren aldiz Italiako Giroan ibili da Iban Mayoza eta aurreko gustura gainera berak komentatu zigun bezala. Aurreneko 25en barruan hasi zen Giroan eta hirugarren amaitu zen maiatzaren 21eko etapari.



25 Irakaskuntzan eragin handien funtzionarioen grebak: Estatuak funtzionarioen soldata %5-a jaitsi nahi duela eta, ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS-ek sektore publikoan grebarako deialdia egin zuten maiatzaren 25erako. Gure herriko instituzioetan ia ez zen greba nabari, Osasun Zentroan larunbatean egon ohi diren langileak jardun ziren. Kaleetan ordea, haur eta gazte ugari ikusi ahal izan genituen guraso edo aitona-amonekin. Izan ere, grebak Lasarte-Oriako irakaskuntzan izan zuen eragin handiena, ikastetxe ezberdinek emandako datuen arabera. •



23 Santos Uribe apurto du errekorra: Maiatzaren 23an, Anoetako ospatutako Gipuzkoako txapelketan garaipena lortu zuen betarriaren kategorian. Gainera, lortutako markari esker, 37:25, 5 km pista probaren Espainiako errekorra haustea lortu zuen.

27 Arrieskaltetaren 3. Urteurrena: 2007ko maiatzaren 27an, herriaren erdigunean, Arrieskaltetaren elkarteak bere ateak ireki zituen. Hiru urte igaro dira eta urteurrena ospatzeko, elkarteak afari-merienda prestatu zuten bere bazkide guztientzat. Giro paregabean ospatu zuten urteurrena.

27 Argazki onenak sarituak: Maiatzaren 27an, Lasarte-Oriako Udal Euskaltegian II. Argazki Lehiaketaren sari banaketa ekitaldiak burutu ziren, bata goizez eta be-

tea arratsaldean. Arratsaldekoan, gainera, Jesus M^a Zaballos Alkatea eta Ricardo Ortega, Euskara Batzordeko lehendakaria egon ziren dominak ematen. Hain hurbil, hain urrun eta Lasarteko eguzki-loreak izan ziren argazki bozkatuak.



28 Garagardo azoka Xirimirir: Jende ugari bildu zen Xirimirir ospatutako Garagardo azokaren lehenengo edizioan. Maiatzaren 28an hasita ukondoaz, saltxitaz,

oilasko hegalez eta patata bizietaz disfrutatzeko aukera ederra eskaini zen. Jatekoaz aparte, garagardoa dastatzeko aukera paregabea ere bazegoen.



29 Eguraldi ederra kirola egiteko: Sokatira, pala, beisbol, gizon proba, futbola, atletismoa, herri kirolak, saskibaloia, tenisa... kirol ugari aritzeko aukera izan zuten Lasarte-Oriako 7 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek Eskola Kirolko jaialdiaren 3. edizioan.

28 Gipuzkoako eskolarteko txapelkun izan zen Ane Labaka bertso idatzietan: Ane Labaka Lasarte-Oriako bertsolariak urteroko zita izan zuen maiatzean Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketarekin.

Lezoko Bekoerrota Udak Kiroldegian jokatu zen maiatzaren 28an finala eta gazteen mailan Urretxuko Amaia Iturriotz izan zen txapelketa batean, eta Ane Labaka herriarra bertso idatzietan. •



Erribera kalea 10, atzealdea • Tel.: 943 362997 • LASARTE-ORIA



2011 ALATSUA OPA DIZUEGU !

LASARTEARRA
KIROL ETA KULTUR
ELKARTEA

Italiara bisita



06 Ricardo Ortega eta Txanpi Baztarrika zinegotziak, Piamente eta Lombardia eskualdetan izan ziren lau egunetan atez ateko bilketaren aitzindariaren eskutik sistema honen nondik norakoak ezagutzen. San Markos eta Deba goieneko Mankomunitateetako 42 laguneko ordezkartza zabala joan zen Italiara guzti hau hurbiletik ezagutzeko.

01 **Zabaleta auzoko jaiak:** Haurrentzako jolasekin eta japoniar bonbekin eman zitzaizen hasiera jaiei. Ekainaren 3an Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en Gora San Fermin bideoklipa grabatu zuten. Eta egun bat beranduago Teresa Sorgina jaisi eta hortik aurrera, merienda, jolasak, kantu afaria, dantzaldiak, antzerkiak, bertsolariak... egitarau zabala izan zuten, inor ez aspertzeko.

01 **Uraren erabilera murrizteko neurriak:** Eskola Agenda 21-ean lanean egon diren Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak eta Landaberri ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleek Udalbatzar aretoan ikastolan eta herrian egindako azterketa aurkeztu zuten. Hartuko zituzten konpromisoak urarekiko eta dituzten eskaerak eta proposamenak ere adierazi zituzten.



02 **Txalaparta eta euskara ikasten:** Ekainaren 2an, Michelingo lantegi ondoko frontoian Munterri-AEK euskaltegi-ko ikasle eta irakasleek txalaparta ikastaroa egin zuten. Tomas Arruti eta Haritz Iparragirreraren eskutik, txalaparta egiteko erabiltzen diren materialak ezagutu, makilak nola hartu behar diren eta, noski, hainbat erritmo ikasi zituzten, hala nola, ttakuna, herrena edo hauek konbinatuz, sagardoaren deia.



02 **Pailazo lanpetuak:** Saltzaille bereziak aurkitu zituzten, ekainaren 2an merkatura hurbildu ziren herritarrek, Porrotx eta Marimotots pailazoak bertan baitzeuden. Merkaturatu behar zuten DVD-rako senegaldarrei buruzko erreportajea egiten ari ziren eta horregatik, Fallu dendariaren laguntzaileak izan ziren.

03 **Emakumezkoen minbizia aztergai:** Emakume ugari bildu ziren ekainaren 3an Manuel Lekuona Kultur etxeko hitzaldi aretoan. Katxalin elkarteak antolatuta, Donostiako Institutu Onkologikoko M^a Jesus Mitxelena doktoreak, bularretako azterketa, tratamendua eta prebentzioari buruz hitz egin zuten. Diagnosi goiztiarrak duen garrantzia azpimarratu zuten.



04 **Diploma banaketa:** Lasarte-Usurbil Institutuko 2. Batxilergoko ikasleek ekainaren 4an eskuratu zituzten ikasketak amaierako diplomak. Orotara 40 ikasle izan dira Batxilergoa bukatu dutenak eta horien artean Maitane Gabilondo, Ainhoa Mangas eta Carlos Aizpuruak ohorezko matrikula eskuratu zuten.

04 **Ikastetxeetako ikasleei esker erreka garbi:** Lasarte-Oriako Udalak URA ur agentziaren laguntzaz, antolatu zuen Aste Berdearen barruan, erreka garbiketa ekintzan parte hartu zuten 120 gaztetxok. Oztaran eta Basotxo erreka garbi utzi zituzten.

04 **Elias Goikouria, hogeitau urte Zero Sette akordeoi orkestrari eskainiak:** Zero Sette akordeoi orkestraren sortzaile eta zuzendari Juan Antonio Merce-rok 1990. urtean eman zion erreleboa Elias Goikouriari. Hamaika kontzertu eta partitura zuzendu ditu geroztik, baita orkestra kide ezberdinak ezagutu ere. Bi diska grabatu ditu eta orkestraren Eliasek hogeitau urte egin ditu zuzendari lanetan. 1990ko maiatzaren 14an, Billabonako Zineman, Elias Goikouriak bere lehenengo kontzertua egin zuen zuzendari bezala. •



UGARI
Supermerkatua

URTEBERRI ON!
Igande eta jai egunetan
ere goizez irekita!

Ola kalea 6 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 21 60

kima masaje-lekua

2011 zoriontsua
opa dizuegu!

Goyo Martin
Xabier Carbayedada

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197
LASARTE-ORIA



San Pedro Jaiak asteburuan hasi ziren

26 Aurten San Pedro jaiak asteburuan hasi ziren. Ekainaren 26an izan zen txupina eta jaiak 29an, San Pedro egunean amaitu ziren. Herritarrek gustura hartu zuten jaiak asteburuan pasa izanaren erabakia eta esan beharra dago asteburuan zehar jende asko ibili zela jaietaz gozatzen.

05 **Kadeteak mailaz igo ziren:** Ostadar K.F.-ko I. kadeteak, jardunaldia izan zuten ekainaren 5ean. Michelingo Kirol gunean kadeteek sailkapeneko 3. postua eta igoera jokatzeko zuten Oiarzunen aurka. Oiarzunen husna berdindu, garaipena behar zuten. 2 eta 0 garaitu zituztenez erronka gainditu eta igoera eskuratu zuten.



05 **Landaberri ikastolako neskak txapeldun:** Donostialdeko Eskola kiroleko taldekako tenis txapelketako finalak ekainaren 5ean jokatu ziren Donostiako Tenis Elkarteko Errealean. Infantil mailan, Landaberriko nesken taldea, Paula Uli eta Maialen Ormazabalak osatutakoa urrezko domina eskuratu zuten.

05 **LOKEko gimnastak Euskadiko Ligako txapelketan:** Garazi Gomez eta Aizpea Arroyo LOKEko gimnastak Euskadiko Ligako Amateur txapelketan parte

hartu zuten ekainaren 5 eta 6ko asteburuan Bilbon. Jubenil mailan, Garazik borra eta xingolarekin lan egin zuen eta Aizpeak, berriz, borra eta uztaiarekin. Garazik borrekin eta Aizpeak uztaiarekin hirugarren postua eskuratu zuten.



06 **Lasarteoriatarrek hirugarren Euskadiko Calva Txapelketan:** Ekainaren 6an, Euskadiko Calva Txapelketa ospatu zen Atsokabarreko parkean. Lasarte-Oriako taldea, taldekako txapelketan, hirugarren geratu zen calvari 299 aldiz jo eta gero.

11 **Euskaraz aritzeko gogo nagusi:** Itakunek antolatuta eta Solaskide programaren barruan kokatuta, Mintzodromoa iritsi zen Lasarte-Oriara ekainaren 11n. Ekitaldi honen helburu nagusia euskaraz aritzea zen eta ederki bete zuen helburu hori lehenengo edizioak.

16 **Lasarte-Oria Bizirik plataformaren Donostian:** Jende asko bildu zen ekainaren 20an Boulevard-etik abiatuta Donostiako kaleetan egin zen errausketaren aurkako manifestazioan. Aurretik Porrotx, Petra eta hainbat haur zihozen euren patin eta bizikletekin, ondoren hainbat lagun pankarten atzetik, tartean batukada eta manifestazioaren bukaera hipodromoko zaldiak, guztiak "Mortoria, osasunaren alde, errausketarik ez" leloarekin bat eginez.



12 **Erkizia txapeldun squashean:** XXII. Squasheko Txapelketa sozialaren finala Agustin Erkizia oriotarrak eta Alberto Udabe usurbildarrak lortu zuten bigarrenengo urtez garaipena.



13 **Ekitaldiz beteriko urteurrena:** Alkoholiko Anonimoen elkarteak 75 urte bete ditu aurten. Nahiz eta Estatu Batuetan sortutako elkarte izan, mundu osora hedatu da eta gure herrian delegaritza bat ere badago. Ekainaren 13an hainbat ekitaldi antolatu zituzten urteurrena ospatzeko.

13 **Santos Uribe Euskadiko txapelketan irabazle:** Ekainaren 13an Gasteizen Beteranoen mailako Euskadiko Txapelketan Santos Uribe txapeldun izan zen 75 urtetik gorako mailan, 5 km-ko marxa proban. Domina irabazteaz gain, maiatzaren 23an lortu-

ANTONIO URRUZOLA

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

AROZTEGIA

Etor zaitez erakusketa ikustera!

Urteberri on!

Asetasuain polig., 3. pabilioia
20170 • USURBIL (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943 376415
Mobila 687 845597

DEL ORIA KRISTALDEGIA

Urteberri on opa dizuegu!

Uistin Kalea 11 (Zubieta plaza)
Tel./Faxa: 943 362352
LASARTE-ORIA

- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatua
- Merkataritzako instalazioak
- Duxako pantailak
- Kristaleria oro har

HARATEGIA • URDAITEGIA

ARALAR

Urteberri on!

Aralar plaza 1
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 365591

Jaiak ordu beteko greba egin zuen

29 Madrilako Gobernuak burutu nahi zuen lan erreforma berria salatzeko greba egiteko deia luzatu zuten ELA, LAB, ESK, STEE/EILAS, Hiru ETA EHNE sindikatuek ekainaren 29rako. Baina San Pedro jaietan eragozpenik ez sortzeko, tabernari eta dendariei, egun osoko Greba egin beharrean, ordu betez itxeko proposamena egin zieten.



tako Espainiako errekorra 37:25, hausti zuen 36:05ko denborarekin.



15 Musika eskolako ikasturte amaiera: Lasarte-Oriako Udal Musika eta Dantza eskolak ikasturte amaierako hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Txikienetik handienara urte osoan zehar ikasitakoa erakutsi zuten. Musika, dantza... eta giro ederra.

16 Atsotakarreko irteera itxi zen istripuagatik: Ekainaren 16an euri-jasak zirela eta, kamioi bat N-1 errepidetik erori, karga galdu eta Atsotakarreko tunela itxi zuen. Kamioilaria ospitalera eraman behar izan zuten.



18 Oroitzapenak: Patxi Altuna herritarrek Lasarte-Oria eta Zubietako hainbat erai-kuntzen maketak egin ditu eta herritarrei erakutsi nahian erakusketa jarri zuen kulturetxean. Bertaratu zirenek txikitako bizipenak ekarri zituzten berriro gogora. Lasarteko etxebizitzak nolakoak ziren ikusi edo gogoratzeko balio izan zuen ere.



19 David Martinek irabazi zuen Azeri bila lasterketa: Ekainaren 19an Hernanin jokaturako Azeri Bila lasterketan David Martin, atleta lasarteoriatarra izan zen garailea. Herriko beste atletek ere parte hartu zuten lasterketan.

19 "Hernaniko txapelketan finalera iristea espero ez bagenuen ere, irabazi dugu": Eneko Sarasola eta Jagoba Mendizabal, 12 urteko gazteak, etorkizun handiko kirolariak, Hernaniko

pilota txapelketako finalean sartu eta txapela eskuratu zuten.



20 Albokaren emanaldi boro-bila: Ama Brigitarren komentuko eliza bete zen ekainaren 20an, Alboka, Alboka txiki eta Txepetxa abesbatzek eskainitako emanaldian. Bildutakoek majo gozatu zuten taldeek abestutako mezetako kantu eta kantu tradizionalekin.

21 Egunen batean, EZ da berri honen beharrik izango; imajinatzen duzu?: ATZEGI elkarteak 50 urte daramatza adimen urritasuna duten pertsonen aldarrikapenen alde lanean. Urteurren honi begira, kanpaina berezia jarri zuten martxan, etorkizunean lortu nahi dena eskuratzeko.

21 "Ezezaguna zaren merkatu batean burua sartzea oso zaila da": Igor Artamendi

lasarteoriatarra eta Unai Bengoa donostiarrek Neurto enpresa sortu zuten duela 2009 urteko hasieran. Irungo FPko Bidasoa Institutuan topografia ikasketak burutzen ari zirela hasi ziren Neurturen nondik norakoa ezartzen. Urrats baterakundeak ekintzaile gazteak laguntzen ditu euren proiektua gauzatzeko. Horretan murgildu eta azkenean, Gipuzkoako enpresa onenaren saria eskuratu zuten.

27 Maialen Chourrautentzat urrezko domina: Maialen Chourraut lasarteoriatarra Seu d'Urgellen ospatutako Munduko Kopako bigarren proban urrezko domina eskuratu zuen emakumezkoen K-1 mailan. 99,65 segundoko denborari esker lortu zuen gure herriko kirolariak domina.



OZTARAN, S.L.



*berrikuntza orokorrak
suteen kontrako instalazioak
energia berriztagarriak*

*iturgintza
berokuntza
gasaren instalazioa*

2011 zoriontsua opa dizuegu!

San Frantzisko 4 • 20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 373389 / Faxe: 943 366598

Urteberri on gazttoi!

*Etorri gure jaki
goxoak
probatzera*



Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

SAN PEDRO JAIAK



Uztaila

"Musika, zinea, irria eta kolorea eramán ditugu Palestinara"

14 Uztailaren 14tik 27ra Joxe Mari Agirretxe, "Porrotx", euskal kultur brigadako kide bezala Palestinan ibili zen bertako errealitatea hurbiletik ezagutzeko asmoz. Musikiariak, bertsolariak, zinemagileak, unibertsitateko irakasleak, ikasleak... guztiak Palestinak bizi duen arazoaren erdigunean murgildu nahian. Bidaian umorerako lekua ere egon zen.



07 **Konpostari buruzko hitzaldia Zabaleta auzoan:** Imanol Azpiroz San Markos mankomunitateko presidente ordeaz uztailaren 7an, konposta eta konpostajeari buruz ikastaroa eskaini zuen.

08 **Saharako haurrak:** Oporrak Bakean egitasmoari esker aurten Lasarte-Orian Saharako 6 haurrek oporraldia pasa dute. Iaztik etorri ziren 7 haurretatik aurten bat, Abdel 13 urte bete dituen kanpoan geratu da, eta ezin izan du Oporrak Bakean programan parte hartu. "Saharako fronte polisarioak urte muga hori jarri zuen" azaldu zigun Txema Benitok, Sahara Herriaren Laguna elkarteko kideak.



08 **Zakurrei eta jabeek erakusten:** Atsotakarren, zakurren jokabideak aztertu eta jabeek zein jarrera hartu behar duten erakusten aritu ziren Jon Azpiroz zakur

hezitzailea eta Irungo "Mi Noble y Fiel Amigo/Nire Adiskide Zintzo eta Leiala" elkarteko Manuel Villar eta Maria Riesgo zakur-etologoak, hau da, animalien portaera aztertzen adituak.

08 **Udako Zinema aurten areto barruan:** Udako zinema izaten zen duela bi urte arte. Okendon, kanpoan ematen ziren filmak. Iaz ez zuten ematerik izan, batetik Okendo uztailaren amaierarako itxi egin zutelako eta bestetik Okendo Zinema taldeak aurrekonturik ez zuelako. Aurten, aldi, denboraldia amaituta bi pelikula eskaini zituen kulturetxean, *Itsasoaren alaba* eta *Sagararren denbora*.

09 **Etorkizuneko Donostialdeko metroaren Lasarte-Erekalde tarteko lehen harria jarrita:** Jesus Maria Zaballos, Lasarte-Oriako alkateak, eta Iñaki Arriola, Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraiobi-deen kontseilariak etorkizuneko Donostialdeko metroaren lehen harria ipini zuten Lasarte-Erekalde tar-teunean. Lasarte-Oriako antzinako pausalekuan izan zen ekitaldia, eta bertan, herriko alkateak mugikortasun egitasmoan Lasarte-Oriaren garrantzia azpimarratu zuen.

09 **Rikardo Ortega EBko zinegotzia kargu guztietan ordezkaturia:** San Markose-

ko Mankomunitateko ordezkaritza, Euskara batzordeko lehendakaritza eta Eskola kontseiluko ordezkaritza dira uztailaren 9an ospatutako Udaltzatza-rean Rikardo Ortega EBko zinegotzia-ri kendutako karguak.



09 **Kelan enpresako langileak greban:** Kelan enpresak ixteko erabakia hartu du eta langileak grebara jo zuten. Espainiako gobernuak hartutako lan erreformari atxikita, enpresako nagusiak langileei lan urte bakoitzeko 20 egun ordaindu nahi die, baina langileak konbenioa mantendu, eta 45 eguneko indemnizazioa eskuratu nahi dute.

10 **Ikurrina Buruntzan:** Urtero legez, uztailaren 10ean, Basaundi auzotik aterata lagun talde bat igo zen Buruntza mendira. Helburua, ikurrina gurutzean jarzea. Ostean, auzora jaitsi eta indarrak berreskuratzeko, hamaiketako egin zuten Buruntz-Azpi elkartean.

11 **Lasarteoriatarrek Zumaia Flysh Trail proban:** Uztailaren 11n II. Zumaia Flysh Trail mendi lasterketa burutu zen eta 360 partaideen artean, Ostadarreko atletismo taldeko kide batzuk eta zenbait herritar ere egon ziren.

Lasterketako ibilbideak 27 kilometrotakoa zen, Zumaia eta Deba artean dagoen Flysh-etik, hain zuzen ere, igaro zen. Jose Ignacio Elvira herritarra izan zen Lasarte-Oriako azkarrena, 2:33:40 denborarekin.

12 **Hasi da zaldi denboraldia hipodromoan:** Uztailaren 12tik irailaren 13a arte, luzatu zen zaldi denboraldia hipodromoan. Abuztuaren 15ean urtero bezala lasterketa nagusia jokatu zen, 42. Urrezko Kopa.

12 **Udako txoko eta kanpaldiak ekintzez beteak:** Udako Txokoak uztailaren 1ean hasi ziren. Hamaika ekintza eta abentura bizi dituzte uztaila eta abuztu-tuan. Esate baterako, uztailaren 6an, San Fermineko txupinari aurre hartuz, Iruñeako jaien giroa bizitzeko aukera izan zuten txikienei. Handienek, berriz, irteerak izan zituzten. Tolosako txotxongilo museoak ezagutu zuten LH1ekoek, urte bete zaharragokoek Zelatun eta LH3 eta LH6 artekoek, Bertizko jaurerriko natur parkea.



2011 zoriontsua opa dizuegu!

Leku berri bat
betikoentzat

Nagusia 31
Tel.: 943 573885



14 "Euskararekin Lasarte-Oria irabazle": Aterpea merkatarien elkarteak, Deco 42 tapicerias dendak, Ezti photo estudioak, Labe-goxo okindegiak, Michelin kontsumo kooperatibak eta Lasarte Parafarmaziak euskara plangintza integrala jarri zuten abian. Lagunak elektrizitate dendak eta Xule fisioterapia zentroak aldez ziurtagiaren hitzarmena sinatu zuten.

14 PubliPan, ogiaren paperezko poltsa : Egun, publizitatea eta informazioa zabaltzeko bide asko daude, internet, mobilak... egunero euskarri berriak bilatzen dituzte eta horietako bat, uztailaren 14an aurkeztu zen: PubliPan ogiaren poltsa. Jendearengana iristeko modu ezberdin, eraginkor eta ekologikoa bezala azaldu zuten arduradunek.

16 Karmengo Amaren ohorez: Oria auzoko bizilagunek haien zaindari den Karmengo Amaren eguna ospatu zuten uztailaren 16an. Solano trikitilari eskolako gazteek goizetik kaleak girotu zituzten eta haien doinu alaiez, auzotarrak Kar-

mengo kaperan eguerdian egin zen mezetara gonbidatu zituzten.

17 Lasarte-Oriak Erdi Aroko garaietara egin zuen itzule-ra: Santa Anako artisau azoka Erdi Aroko azokan bilakatu zen aurtengoan. Dorre Parkea eta Brigitarren plaza Erdi Aroko azoka baten itxura hartu zuen 17-18ko asteburuan. Arabiar azoka, tabernak, postuak, haurrentzako txokoa eta artisauen lana zuzenean ikusteko aukera egon zen. Honetaz gain, kale ikuskizunak eta musika azoka alaitzeko. Ekitaldi nagusia edo aipagarriena, larunbata gauean irudikatutako akelarrearen ikuskizuna izan zen.



17 Maialen Chourraut Espainiako txapelkun: Frantziako Orthez herriko kanalean lehiatu zen uztailak 17 eta 18ko asteburuan, Espainiako Slalom txapelketan. Maialen Chourraut lasarteoriatarak K1 mailan parte hartu zuen eta estatuko onena dela berretsi zuen.




21 Merkatua lekuz aldatu da: Uztailaren 21ean merkataria hurbildu ziren herritarrek harrituak geratu ziren. Ibai ondoko postuak ez zeuden eta. Udaltxe eta parke berriko lanak zirela eta, merkatuko hainbat postu lekuz aldatu zituzten. Aukeratutako lekua, Brigitarren plaza eta Elizatze plaza. Elizatze plazako kokalekua behin behinekoa da lanak bukatu arte, baina Brigitarren plazakoa aldez, behin betikoa.

23 Santa Brigitaren ohorezko meza: Santa Brigitaren egunarekin bat etorriz, uztailaren 23an Brigitarren komentuan meza ospatu zen. Herritar ugari bildu zen komentuko kaperan, Munilla, Gipuzkoako gotzainak zuzendutako meza zentutera. Laguntzaile lanetan, herriko apaizak eta Usurbilekoa egon ziren.

26 Bardaji-Arluziaga bikotea Santa Anako irabazle berriro ere: Aurtun ere, Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji izan ditugu Santa Ana pala txapelketako irabazleak. Bernaitz Odriozola eta Shanti Martinen aurka jokatu zuten finala. Partida berdindua izan zen eta tanto luzeak ikusi ziren.



26 Parodia musikala: Urtero legez, uztailaren 26an, Santa Ana eguna ospatzeko gogoekin jaiki ziren Lasarte-Oriako herritarrek. Eguzkia lagun izan zuten goizetik. Brigitarren komentuko Santa Ana eguneko meza eta ondoren luharekin hasi ziren ospakizunak. Triapak beteta, udaltxe ondoan dagoen Santa Ana Karkaban agurra dantzatu zuten Erketzeko dantzariak. Aurtengo parodia berrikuntzez beteta etorri zen, aktore eta parte-hartzaile berriak biltzeaz gain, antolatzaileek parodia musikala aurkeztu zuten Isla plazan. Omendua Exiquio Perez izan zen. •



Abuztua

Oliao biltzeko edukiontzia

19 Edukiontzia laranjak jarri ziren Lasarte-Oriako bedera-tzi tokitan erabilitako olioia jasotzeko. Udalak, birziklapenaren aldeko beste pausu bat eman nahi duela eta, herritarrei deia luzatu zien ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta sortutako hondakinak bereizteko. Bi mila biztanleko edukiontzia berezi hauetako bat jarri zen, guztira bederatzi udal-erri osoan. Dena den, merkatuan asteazkeneko ere bilduko da erabilitako olioia.



13 Maialen Chourraut zazpigarren Europako txapelketan: Abuztuaren 13tik 15era, Bratislavako kanalean Europako Slalom mailako txapelketa lehiatu zen eta



Maialen Chourraut herritarrek zazpigarren postua lortu zuen.

Maialenek ez zuen denborarik izan kanalarri egokitzeko eta gainera, piragua aldatu berri du. Tamalez, finalean kanalarri bigarren zatian akats dezentegina egin eta 50 puntuko zigorra jarri zioten. Egoera horrek zazpigarren postua eman zion palista lasarteoriatarri.

15 Bannaby bigarren Urrezko Kopan: Abuztuaren 15ean, Donostiako Hipodromoan denboraldiaren proba garrantzitsuenan ospatu zen, Urrezko kopa. Karrera honen 41. edizioan Bannabyk lortu zuen garaipena J. Grosjean zaldunaren gidapean.

23 48.000 euro baino gehiagoko galera argiteriko kablearen lapurretan: Lasarte-Oriako herrian, abuztuaren argiteri kable lapurreta ugari egin ziren mugimendu gutxi dauden eremuetan, hain zuen ere, Arranbide-Tribuna pasean, Zumaburu auzoko ibai aldean eta Azkorte bidean.

Honen ondorioz, Udalak 48.000 euro baino gehiagoko galera izan duela jakitera eman zuen. Era berean, Zumaburuko ibai ondoko parkean, ureztaketako 100 metro kable ostu zituztela ere aditzera eman zuen.

Hau berriro ez gertatzeko zaintza gehiago jarri zen eremu hauetan Udalaren aldetik.

28 125.000 euroko saria Lasarte-Oriara: Abuztuaren 28ko ONCEko zozketak 125.000 euroko saria ekarri zuen Lasarte-Oriara. Hain zuzen ere, Eladino Ferreirak, Kale Nagusiko kiosko arduradunak saldu zituen bost boleto izan ziren zortekoak, bakoitzak 25.000 euroko sariarekin.



2011 zoriontsua opa dizuegu!



txintxarri

Kultur Ekarlea
Ttakun



Kukuka iritsi da herrira

16 Orain dela 8 urte Landaberri Antzerki Eskola bezala sortu zena, Kukuka antzerki eta dantza eskolan bihurtu zen irailaren. Hemendik aurrera, izaera juridikoa eta antolakuntza berria du antzerki eta dantza eskolak. Ia 50 talde eta 500 ikaslek osatzen duten eskolak, sendotasuna eta herri izaera hartu du. "Poliki-poliki jaiotako antzerki eta dantza-ren mundu hau, hazten eta hezten joan da, egun errealitate handi bat osatuz," azaldu zuten arduradunek.

03 Ez zuen txapela eraman: Jende ugari bildu zen irailaren 3an Zarautzen ospatu zen Lizardi sariaren finalean. Bertsolari Gazteen XXXIV. Txapelketaren honetan ere Ane Labaka gazte lasarteoriatarra bertan izan zen, txapela lehiatzen. Saioan zehar ondo aritu bazen ere, ezin izan zuen txapela eraman.

10 Saharako haurren agurra: Urtero legez, Oporrak Bakean egitasmoari esker, Saharako haur multzo bat etorri zen herrira oporrak igarotzera eta bere herriko baldintza latzetatik urruntzera. Egun horietan gertakari eta bizipen ugari izan zituzten Dalahi, Dah Salama, Brahim, Fahda, Umu-jutha, Ma-Alinin eta Galia Saleh-ek. "Oporrak Bakean" egitasmoari esker, esperientzia, kultura, hizkuntza eta ohitura desberdinak bizitzeko aukera izan zuten bi hilabete horietan.



11 Asoleus taldea irabazle Jesus Perez-El Maño I. Memoriale: Texas-Lasartearrak Futbol elkarteak antolatutako Jesus Perez-El Maño I. Memoriala ospatu irailaren 11n Kirol guneko zelaian. Texas-Lasartearra, Usurbil eta Asoleus taldeak lehiatu ziren trofeoa eskuratzeko eta azken honek eraman zuen.

11 Ama Guadalupe jaietan giro ona: Herriar ugari bildu zen irailaren 11-12ko asteburuan, Uzturre plazan Ama Guadalupe Extremadura erkideko zaindariaren eguna ospatzeko burutu ziren ekitaldietan. Adin guztientzako ekintzak izan genituen; jolasak, dantza, karta joko, bazkari, bolo txapelketa... Ikusle eta parte hartzaile kopurua handia izan zen.



16 Merkatarien alde: Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea Merkatarien Elkarteak esparru-hitzarmena sinatu zuten, berriro ere. Era honetara, bi erakunde elkar-

lanaz herriko komertzioa dinamizatzeko hainbat ekintza egitea asmoa.

17 Udari agur giro onean: Urtero aldaketa irailaren 15ean izan bazen ere, Zabaleta auzoko lagunek 17an ospatu zuten udazkenaren etorrera. Auzotar ugari izan ziren Blas plazan, Sardinak janaz gozatu eta giro onean solasean aritu zirenak.

18 Betiko kokalekura Ormazabal loradenda: Irailaren 18an Lizarriturrienean, edo askok ezagutuko duten moduan Alpagateri Zaharrean Ormazabal loradendakoek denda berria inauguratu zuten. Lau urte eta erdi pasa dira etxea bota eta berria bukatu duten bitartean. Tarte horretan Zumabururaren egun zen.

19 Lasa eta Charo Galan garai- le: Ostadarrek Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin, zazpigarren urtez antolatu zuen irailaren 19an Michelingo kirol guneko bola tokian Martin Egaña eta Santi Garcia Bolo oroimenezkoa. Gizonezkoetan Jose Antonio Lasa lasarteoriatarra eta emakumezkoetan Charo Galanek irabazi zuten.



16 Jon Tecedor beka: Udalbatzarrak Jon Tecedor beka sortzea erabaki zuen. Jesus Zaballos alkateak azaldu zuenez, "iaz, San Pedroetan Jon Tecedorri egindako omenaldian sortu zen ideia eta orain martxan jartzea erabaki dugu". Kirol minoritarioa den halterofilia Euskal Herrian bultzatzea du helburu.



USURBIL
Garajea
KONPONKETAKO
TAILERRA

Zumaburu aparkalekua 18
Tel.: 943 362463 • Faxa: 943 360360
talleresusurbiladm@hotmail.com

FIAT
LANCIA
SERVICIO

Urteberri on!

BIYAK BAT

2011 zoriontsua opa dizuegu!

Kale Nagusia 40 • Tel.: 943 363964 • LASARTE-ORIA

KEMPOMAT

- Soldeatzeko produktua
- Fluidoen konduktoreak

Urteberri on!

IMOPAC AMCON BINZEL

Muga ibilbidea I • Tel.: 943 370011
Faxa: 943 365135 • LASARTE-ORIA

Herri barruko autobusa proban



25 Lasarte-Oriako auzo elkarteek urteak daramatzate eskaera egiten, Udalak herrian barrena ibiliko den autobusa jartzeko. Duela bi urteko mugikortasun asteen, proba egin zen. Orduan, doan zen. Lau hilabetez, egongo den proba honetan, ordea, herritarrek ordaindu beharko dute.

21 **Gripearen aurkako txertoaren kanpaina:** *Konplizeak gripearen aurka* kanpaina irailaren 21ean hasi eta urriaren 31a arte luzatu zen.

24 **Bizikleta festa baldintzatu zuen eguraldi kaxkarrak:** Mugikortasun Asteari bukaera eman zion Lasarte Oriako Haurren III. Bizikleta Festa ez zen antolatzaileek nahi zuten eran egin ahal izan Andatza Plazan.

Batetik herrian zehar egin behar ziren bizikleta-ibilaldiak bertan behera gelditu ziren euri zaparrada handia iri zuelako eta bizikleta festa Landaberri ikastolaren Garaikoetxea eraikineko atarpean egin behar izan zen.



25 **Motorzaleen bilkura Mendi Kafe Rock-en seigarren urteurrenean:** Irailaren 25ean motorren burrunba nagusitu zen zenbait unetan Lasarte-Oriako kaleetan. Mendi Kafe Rock tabernak seigarren urteurrena ospatu zuen

motorzaleen bilkura batekin. Ia 200 motor gidari etorri ziren hainbat leku-tatik Lasarte-Oriara.



25 **Aukera bikainak stock ferian:** Aukerako produktu eta prezioak izan ziren Lasarte-Oriako Stock eta Saldoen III. Factory ferian. Michelingo frontoian herriko eta kanpoko hainbat dende saldu gabe zituzten hainbat produktu jarri zituzten salgai prezio ezin-hobee-tan. Iaz bezala bi egunetan egin zen Aterpea Elkarrekin herriko udalaren laguntzarekin antolatutako azoka.



29 **Normaltasuna nagusi greba orokorrean:** Egun normal bat igaro genuen irailaren 29an herrian. Ohiko irudiak izan zituen Lasarte-Oriak greba orokorraren egunean. Komertzio, banketxe eta taberna gehienak irekiak mantendu ziren egun osoan zehar. Azoka normaltasun osoz eta jendez gainezka ikusi genuen eguraldi paregabeari esker. Piketeen arrastorik ere ez zen sumatu.



29 **Kubako "Guajirak" :** Kuban elikadura subiranotasuna lortzeko ematen ari diren pausuei buruz bertako nekazari eta abeltzainen ordezkari den Alicia Garcia irailaren 29an kultur etxean hitzaldia eman aurretik, herriko Komite Internazionalistak poliziak Askapenako zazpi kide atxilotu zituela salatu eta "herrien arteko elkartasunaren aurkako eraso" zela nabarmendu zuen.

30 **Gema Zabaleta herrian:** Irailaren 30ean Eusko Jaur-laritzako Enplegu eta Gizarte gaietako kontseilaria den Gema Zabaleta egon zen PSEEn herriko etxean.

Jesus Zaballos alkatea eta partidu-ko ordezkariak gain, herritar ugari bildu zen. Kontseilariak Enplegu eta Gizarte gaietaz mintzo zen, hala nola, Estatuak egingo duen lan politika aktiboaren transferentzia eta Lanbideren egitekoaz.



PESCANORTE S.A.

**Mokadu goxoen
txokoa duzue gurea!**

**2011 ZORIONTSUA
OPA DIZUEGU !**

**LEIZOTZ poligonoa, D partzela
Andoain-Urnieta errepidean
ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 304300
Faxa: 943 304218
e-maila: pescanorte@euskalnet.net**



Goiegiko 76 etxebizitzek badute jabea

01 Urriaren 1ean, 76 herritarrek zortea izan zuten eta Goiegi-Ibarreko Babes Ofizialeko Etxebizitza baten behin behineko onuradunak bilakatu ziren. Ikusmin handia sortu zuen Manuel Lekuona kulturetxean Udalak egin zuen zozketak.

02 **Akordeoi musikaz gozatzen:** Lasarte-Oriako Akordeoi Jaialdiaren VII. edizioa ospatu zen urriaren 2an. Aurten Paris-Moscou bikotea, Accordion in Modern talde katalanak eta Zero Sette eskaini zuten kontzertua. Gainera, Iñigo Peñak idatzitako Dharma obraren estreinaldia egin zuen Zero Settek.

02 **Musika eta jai giroa nagusi:** Esna Hadi Kultur elkarteak urriaren 2an I. Baita Rock Jaialdia antolatu zuen. Eguerdian hasi zen kalejira poteoarekin, babarrun janarekin jarraitu eta ondoren Andatza Plazan musika izan zen nagusi.

02 **David Martin Zumaiaiko Zakila biran garaile:** Urriaren 2an, Zumaiaiko Zakila Biran, beroari eta haizeari aurre eginez David Martin herritarrek garaipena eskuratu zuen.

02 **San Pedro elizako mezak ETB-n:** ETB kateko grabazio taldea San Pedro parrokiaren hilaren 2an, 19:00etako meza grabatu zuen Meza santua saioan eskaintzeko. 9an eta 16an ere grabatzera etorri ziren.

02 **Elizalderentzat brontzezko domina:** LOKEko judoek denboraldia hasi eta domi-

na eskuratu zuten Beñat Elizalderen eskutik. Urriaren 2an, Irunen jokatu zen nazioarteko San Martzial txapelketan bere mailan brontzezko domina lortu zuen.

03 **Altuning Pro saria Jon Jimenez-entzat:** Erasmus programari esker, Jon Jimenez Macuso lasarteoriatarra Pragan izan zen. Gainera, bueltan Altuning Pro ekimenean parte hartu, atzerrian ikasitako kontakutua eta 3.000 euroko saria jaso zuen.

04 **"Barne arkitekturek":** Miguel Angel Oribe eskultorea harria lantzen hasi zen, eta egun, zura eta burdina erabiltzen ditu gehien bat. Urrian Urretxun aurkeztutako *Barne arkitektura* erakusketan zuraren garrantzia handia zen, baita serigrafiaarena.

04 **Tapiaren "Eta tira eta tunba":** Joseba Tapiak II. karlistadako abestiekin osatu zuen *"eta tira eta tunba"* diska berria aurkeztu zuen urrian. Zakurra-aren Bibolina disketxea sortu zuen Joseba Tapiak duela lau pabost urte eta argitaratzen duen bigarren diskoa da.

06 **Intzako pilotari gaztetxoak aktore:** Emily Lobsenz zine zuzendari estatubatuarra

Euskal Herriarekin liluratuta dago eta bere proiektu pertsonalena "Ipuina Kontatu-The Basque Way" izan da. Horren harian urrian Lasarte-Oriara etorri zen Michelingo kanpoko frontoian Jon Presa, Aritz Solano, Eneko Sarasola eta Yagoba Mendizabal pilotari gaztetxoak grabatzera, baina graffiti gehitxo zegoela iruditu eta Usurbilgo pilotalekura joan ziren grabatzera.

06 **Punto-ko dardo jaurtitzailak Holandan:** Urriaren 7tik 10era Holandan, Sevenum herrian Punto de Encuentro tabernan jokatzeko duten hainbat jaurtitzaila izan ziren Europako 18. Dardo Txapelketan. Emaizari onena Judith Sieira eta Laura Gomez bikoteak eskuratu zuten Amateur mailako 501 txapelketan lehenengoak izan baitziren.

09 **Ostadarrek irabazi zuen Erregionalen derbia:** Urriaren 9an I. erregionaleko derbia jokatu zen Michelin kirol guneko futbol zelaian. Denboraldi ko Ostadar eta Texas Lasartearra herriko taldeen arteko lehen norgehiagoka zen eta Ostadarrek eraman zituen hiru puntuak.

09 **Beñat Elizalderentzat brontzezko beste domina:** Beñat Elizalde Bartzelonako Nazioarteko Txapelketan hiruga-

rren postua eskuratu zuen. Sei borroka egin zituen lasarteoriatarrek eta maila ona erakutsi zuela azpimarratu zigun Gorka Aristegi bere entrenatzaileak. Bestalde, kadeteak Pauen egon ziren urriaren 10ean, eta Josu Olmosen bosgarren postua eskuratu zuen. Era berean, Mario Garridok ere Ama Guadalupeko taldearekin bosgarren postua eskuratu zuen Sizilian.

10 **Maximiano Castro eta Josefa Ignacia Otaegui omen-duk:** Urriaren 10ean pertsona adinduen egun handia izan zen Lasarte-Orian. Ospatzeko, San Pedro parrokiaren meza Alboka Abesbatza, Patxi Etxeberria bertsolaria eta Amalur eskolako trikitixa taldea eta dantzariak girotua. Bazkarian Maximiano Castro, 1914. urtean jaioa, eta 1918an jaioetako Josefa Ignacia Otaegui omen-duk zituen Udalak.



10 **Pili Bodegas bigarren 3 Hondartzetan:** Urriaren 10ean, Donostian 3 Hon-

COPILASARTE

Urteberri on guztioi!

- ESTANPAZIOAK
- FAX-ZERBITZUA
- FOTOKOPIAK

Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930
Faxa: 943 366931 • Lasarte-Oria

Urteberri on opa dizuegu!

Kale Nagusia 34
Tel.: 943 366000 / 943 36608
Faxa: 943 364700
20160 Lasarte-Oria

la Caixa

patrizio

Urte berri on guztioi!

Uistin Kalea 1
Lasarte-Oria

Odol emailei omenaldia Adunan



24 Odola ordezkazina da, ezin da laborategi batean sortu, beraz lortzeko modu bakarra emaileen bidez da. Odola ematen duten pertsona anonimo hauek saritu nahi izan zituen Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak Oriako Beheko ordezkariak. Adunan eginiko omenaldian, hainbat herritarrek intsigniak eta diplomak jaso zituzten urte asko odola eman izanagatik.

dartzetako XXI. Amstel krossa ospatu zen eta Pili Bodegas emakumezko beteranoen bigarren postua lortu zuen.

16 Haur asko bide-hezkuntza ikasten: Bigarren urtez, Urbileko aparkalekuan Kontzien-tziatu zaitez! Urritasunarekin ere gai zara kanpaina ospatu zen Michelin Lasarte eta Adecco fundazioak sustatuta. Bertan autoeskola berezia jarri zuten 6 eta 12 urte arteko urritasuna eta urritasunik ez duten haurrei zuzendua.

17 Eguraldi kaxkarra Ibilbideen egunean: Urriaren 17an Buruntzaldeko Ibilbideen III. Eguna ospatu zen. Aurten, Lasarte-Oriako kiroldegia zeukan antolaketa-aren ardura. Pena eguraldi txarra egin zuela, baina hala ere, jende ugari bildu zen eurari aurre eginez inguruko herritako paisai eta bidezidorrak ezagutzeko eta gozatzeko asmoz.

17 Brontzezko bi domina Sauvagnonetik: Urriaren 10ean, LOKEko infantil mailako judoek Frantzian, Sauvagnoneko nazioarteko txapelketan Oscar Garrido eta Fermin Aristegik brontze-ko domina lortu zituzten.

21 35.000 euroko saria Lasarte-Orian: Urriaren 21eko ONCEko zozketak 35.000

euroko saria ekarri zuen herrira. Eladino Ferreirak, Kale Nagusiko kioskoak arduradunak saldu zuen boleto saritua.

24 Arrieskalletakoak oinez joan ziren Leitzara: Arrieskalleta elkarteak 30 lagun inguru oinez joan ziren urriaren 24an Berastegitik Leitzara eta gero Gurazmendi elkartearen bazkaldu zuten. La lau ordu behar izan zituzten Berastegitik Leitzara bidea egiteko. Oinez 27 lagun iritsi ziren, horietatik 7 haurrak.

24 Iñaki Racamonderentzat garaikurra: Bigarren urtez, Euskadiko mendi igoera txapelketako Klase-1eko lehena izan da herriko Iñaki Racamonde. Maiatzetik urria burutu zen Euskadiko Mendi Igoeren txapelketa.



25 Osasun Jardunaldiak: Urriaren amaieran ospatu ziren Osasun Jardunaldien XVIII. edizioa. Aurten; Teknologia berri eta sare sozialenganako adizkia, Alzheimerre, Nola gainditu tabakoa-

20 Maialen Chourraut eta Jon Tecedor sarituak: Eusko Jaurlaritzak aurten kirolleko Euskadi saria Joko Olinpikoetan parte hartu duten kirolari euskaldunei ematea erabaki du. Era honetara, 1900 urtetik hona udako eta neguko Joko Olinpikoetan, zein 60. hamarkadatik egiten dituen Joko paralinpikoetan egon diren 252 kirolari izan dira sarituak. Horien artean, Jon Tecedor eta Maialen Chourraut lasarteoriarrak daude, baita Amaia Andres LOKEko atletismoko entrenatzailea ere.



renganako adizkia eta Transplanteak izan ziren hitzaldien gaiak


26 Etxean konpostatzen hasi da Zabaleta: Lorategiko edo baratze-ko landare-hondarrak eta etxeko hondakin organikoak nahastuz, konposta nola egin daitekeen ezagutu zuten Zabaleta auzoko hogeita lagunak urriaren 26an. Auzo elkarteak konpostatzeko kutxa banatu zituen; batzuk auzoko kaskoan bertan jarri elkarrekin, lurrik ez daukaten auzotarrek amankomunean konposta egin zezaten.

26 "Ezin dudana arte segituko dut pilotan": Mikel Landa, herriko pilotariak brontze-ko domina jantzi zuen Munduko XVI. txapelketan trinketean.

30 Giro ederra Kukukaren alde: Zubieta Frontoia jendez bete zen urriaren 30ean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren Irriren Lagunak saioa ikusteko. Baina hau ez zen saio normala izan, pailazoez gain Lasarte-Oriako hainbat elkarte-ko kideak dantzan ikusi genituen helburu bakarrekin, Kukukaren alde dirua biltzea.

31 Herriko atletak irabazle: Ostadar K. F.ak antolatzen duen kros herrikoia XV. edizioa ospatu zen urriaren 31n. Herriko kirolariak izan ziren garaile. Gizonezkoetan David Martin eta emakumezkoetan Pili Bodegas. Aulki gurgildunetan ez zuen herriko inork parte hartu eta lehenengo postua Oriara joan zen, Jose Antonio Iglesiarentzat.

EPEL



2011 zoriontsua opa dizugu!

**TXERRI-BELARRI GUTIZIAZKOAK
ETA OLAGARROA**

AUKERA IZUGARRIA

- pintxoetan
- razioetan
- ogitartekoetan
- plater konbinatueta

Goikale 1 • Tel.: 943 362701 • LASARTE-ORIA

SEMBLANTE ANDALUZ



GURE ROCIOKO
AMA BIRJINAREN
KOFRADIAK
2011
ZORIONTSUA
OPA DIZUE

Golf plaza 2
Lasarte-Oria
Tel.: 943 363699



LABek irabazi zituen lehenengoz Michelingo hauteskunde sindikalak

16 Lasarte-Oriako Michelin lantokian hauteskunde sindikalak egin ziren azaroaren 16an, eta LAB sindikatuak lehen aldiz hauteskundeak irabazi zituen. Emaita historikoa ditugu, 1978. urtetik, lehen aldiz CCOO ez den beste sindikatu batek irabazi baititu hauteskundeak. LABek 174 lortu zituen eta CCOO sindikatuak, berriz, 172 boto.

01 Loreak nagusi Illarraltzetan: Santu Guztien egunean bisita ugari izaten ditu kanposantuak. Mendioker eta Santa Barbara mendien artean kokatutako leku lasai honetara herritar ugari hurbildu ziren, familiakide eta lagun hilobietan lore sortak uzteko.

03 Esleitu dira etxebizitzak: Lasarte-Oriako Udalak azaroaren 3an esleitu zituen Goiegi-Ibarreko 76 BOE konkrituak. Bigarren zozketa honetan, urriaren 1eko zozketan aukeratua izan zen pertsona bakoitzari ezagutarazi zitzaion zein den berari dagokion blokea eta etxebizitza.

06 Dardoak eta integrazioa: Bost urte dira Jalgune elkarteak mutil eta neskek txapelketa berezi honetan parte hartzen dutena. Beraien eta beste gazte batzuen indarrak batuz dardo lehia-keta kooperatiboa antolatzen da, Dardos Easoren laguntzaz, Also tabernan. Aurten 15 bikote aritu ziren lehian.

06 Leitzaran bailarako iragana ezagutzen: Oinatz taldearen eskutik eta Burdina taldearen laguntzaz 20 bat herritarrek azaroaren 6an Leitzaran bailarako iragan industrialaren ezagutu zuten. XVI. mendiko zubia, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugarrira, meatzeak eta honetaz gain, Plazaola trenbidearen sorrerari buruz ere jakin zuten.

roaren arteko mugarrira, meatzeak eta honetaz gain, Plazaola trenbidearen sorrerari buruz ere jakin zuten.

07 Albizuri Handi harri berezia bost aldiz altxatu du Urtzi Telleriak: Urtzi Telleriak 80 kilorekin 165,5 kiloko Albizuri Handi harri berezia bost aldiz altxatu zuen azaroaren 7an, Amezketan. Bigarren izan zen urtero ospatzen den proban, Joseba Ostolaza txapeldunaren atzetik. Eta azaroaren 14an Aldatzzen jokaturako Harri Handien Euskal Herriko Txapelketan 200 kiloko harria jaso zuen.



10 Betibizi loreak Oroimenaren Egunean: Hilaren 10ean, Memoriaren Eguna ospatu zen erakunde ezberdinetan. Foru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta EULELe adostutako testua irakurri zen erakunde hauetan egin ziren ekitaldietan. Goizeko 11:30ean hasi zen

ekitaldian PSE-EEko 8 zinegotziak, LOHP, PP eta EAJko zinegotzi bat izan ziren.

13 Emakumeak irabazle Arrieskalletan: Arrieskalleta elkarteak azaroaren 13an, II. Mus Txapelketa egin zuen. Iaz hamar bikote animatu baziren ere, aurten hamasei bikotek hartu dute parte lehian. Finalera Kike eta Txutxik osatzen zuten bikotea Arantxa eta Axunen aurka aritu ziren eta emakumeek eraman zuten txapela.

13 Dominak LOKErentzat: LOKEko judoek azaroaren 13an bi lehiaketa izan zituzten Amurrioren eta Eibarren eta bietan emaitza onak lortzeaz gain, "judo ona" erakutsi zuten. Amurrioko Hiria txapelketan Oscar Garridok urrezko domina eskuratu zuen. Fermin Baldarentzat bigarren postua izan zen. Eta Asier Zubizarreta eta Haritz Urdangarin-ek brontzea lortu zuten. Alebinek Eibarren San Andres Txapelketa izan zuten eta parte hartu zuten guztiek domina eskuratu zuten.

14 Hotza eta euriari aurre egingez Behobian: Guztira herriko 169 korrikalarik hartu zuten parte Behobia-Donostia-ren 46. edizioan. Aurten ere David Martin izan da lehenengo lasarteoriarra helmugan 01:05:26 denborarekin eta lehenengo emakumezkoa Olatz Arozena 01:42:08rekin.

tarra helmugan 01:05:26 denborarekin eta lehenengo emakumezkoa Olatz Arozena 01:42:08rekin.



17 "Errausketak osasunean dituen ondorioak epe luze- ra ikusten dira": Errauskailuak osasunean duen eraginari buruz hitz egin zen azaroaren 17an Kultur etxeko hitzaldi aretoan. Errausketaren aurkako plataformen koordinakundeak antolatutako hitzaldian Julia San Jose eta Iñigo Suberbiola medikuak izan ziren. Herrialde desberdinetan egin diren azterketen emaitzak eskaini zituzten.

18 Lore eta Pupuren jendaurreko aurkeztea: Azaroaren 18an, Pirritx-en bi ume bikiak, Irrien Lagunak Kluba, www.irrienlagunak.com web-a, Irria aldiria eta pailazoen lagun berriak aurkeztu zituzten haur eta gurasoen aurrean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen aurkezpena.



ANAIK

JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN!

2011 zorian zuzun opa dizkizuegu!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

Literatur Lehiaketako sarituak



27 Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoa jendez gainezka zegoen Lasarte-Oriako XXIV. Literatur lehiaketaren saridunak ezagutzeko. Euskarazko ipuin kategorian Axun Azurza Iraola lasarteoriatarrek eskuratu zuen lehenengo postua Zorioneko autobusa obrari esker. Lasarte-Oria Saria David Ares Rodriguez jaso zuen Moises el hombre congelado obrari esker.

18 **Ostadarreko Ohorezko Infantilei babes:** Ostadar Kirol Fundazioko Ohorezko Infantil taldeak aurtengo denboraldian Radio Bahiaren izena darama kamisetetan. Radio Bahiak 2010/11 denboraldian kirol elkarte honi ekonomikoki laguntzea erabaki zuen.

18 **Udalak eta Aterpearen artean hitzarmena:** Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea Merkatarien elkarteak lehenengo elkarlan hitzarmena sinatu zuten. Helburu nagusia, herriko merkataritza dinamizatzea izango da. Hitzarmen honi esker, Aterpeak 4.000 euroko dirulaguntza jasoko du. Jesus Zaballos alkatearen hitzetan, "gure komertzioari eta herriari bizitza emateko beste pauso bat da hau".

19 **Flauta, biola eta gitarra hirukotea:** Lasarte-Orian bizi den Carlos Rosat flauta joleak parte hartu zuen azaroaren 19an Danok Kidek antolatutako VI. Musika Topaketaren barruan. Musikari honekin batera, Brigitarren komentuan Eduardo Berenzano gitarjolea eta Pascal Arnaud biolajolea izan genituen.

19 **Verdiniko dantzarien ikuskizun paregabea:** Hunkigarria izan zen Verdini

Dantza taldeko kideek azaroaren 19an Kultur Etxean eskaini zuten "Dantzaria naiz" izeneko emanaldia. Dantza saioen ondoren eta batez ere amaieran txalo zaparrada beroa jaso zuten oholza gainean izan ziren dantzari eta musikariek. Oholtzan izan ziren dantzarien artean zen Nerea Astarbe Lasarte-Oriako dantzaria.

20 **Leku berri bat, baina betikoentzat:** Kale Nagusiak eta Goikalek bat egiten duten bidegurutzean historia handiko eraikina zegoen, Lizarriturrienea. Bertan alpagategiaz gain, Juanito taberna zegoen. Eraitsi eta egun edifizio modernista bat da, eta Juanito tabernaren jabearen bilobak Arantxa Usararrenak eta bere senarrak, Lasarte Taberna ireki dute.

22 **Patxi Larrañagaren haragia I. Parrillada Lehiaketan garaile:** Donostiako Kurasaalean egin zen San Sebastian Gastronomika jardunaldien barruan, I. Parrillada lehiaketan Josean Eizmendi Donostiako Illarra jatetxeko jabeak eta Patxi Larrañaga herritarraren haragiak lortu zuten lehenengo saria.

22 **Santa Zeziliaren omenez:** Musika izan zen nagusi, azaroaren 22an, Santa Zezilia egunean. Jon Lasaren Amalur

eskolako gaztetxoak izan ziren lehenak Lasarte-Oriako kaleak musikaz betetzen. Ondoren, Lasarte-Oriako Udaleko Musika eta Dantza eskolak kultur etxean egin zion merezitako omenaldia musikari.

25 **Lazo txuria biolentziaren aurka:** Azaroaren 25ean genero indarkeriaren kontrako eguna izan zen eta lazo txuri bat irudikatu zuten Zentro Zibikoko emakumeek.

Udalean, Villa Mirentxun eta Emakumeen Zentro Zibikoan EUDELeK sustatutako indarkeriaren aurkako puntu moreak ikusi ziren.

27 **San Pedro jai bereziak ospatzen:** Jaiak jendearekin biltzeko garaia delako, aurtun, Jalgunekoez sanpedroak irudikatu zituzten Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholztan Urritasunaren eguna zela eta. 100 parte hartzaile inguru eta adin guztietakoak, aurtengo IV. edizioak gazte talde honek babes zabala duela erakutsi du. Izan ere, oholztan ez ezik, aretoan ere herritar ugari bildu zen gazte talde honek ilusioaz prestatzen duen jaialdia ikustera.

27 **Musika eta umorea nagusi Agus Mujikaren ohoretan:** Euskara ikasi, irakatsi eta hau sustatzeko eginiko lanagatik jaso

zuen, Agus Mujikak, Takolok, aurtengo Ttakun Saria. Azaroaren 27an, Goiegi jatetxean, omenaldi berezia egin zitzaion. Euskararen alde egin dituen gauzak ezagutu zituzten ekitaldi honetara bildu ziren herritarrek.



27 **Texas Lasartearra taldeak errebantxa hartu zuen:** Azaroaren 27an I. Erregionalako taldeen denboraldiko bigarren buruz burukoa izan genuen. Lehenengoan, Ostadarrek 4 eta 3 irabazi bazuen ere, oraingoan, Texas Lasartearra izan zen garaipena eskuratu duen taldea.

29 **Kultura sustatzeko hitzarmenak:** Erketz Dantza taldea, Semblante Andaluz, Zero Sette akordeoi orkestra eta Alboaka abesbatzak 2010eko hitzarmena sinatu zuten azaroaren 29an Lasarte-Oriako Udalarekin. Hitzarmen guztiek 15.000 euroko laguntza osatzen dute.



2011 alaitzua opa dizuegu!

BURUNTZ-AZPI

Arrantza eta ehiza elkarte

BASAUNDI BAILARA 9
TEL.: 943 370685
LASARTE-ORIA





Buruntzaldea IKTko igerilariak domina ugari lortu zituzten

11 Abenduaren 11, larunbata, herriko igerilariarentzat egun oparoa izan zen. XIV. Hernani Saria eta San Esteban Saria ospatu ziren. Goizeko proban Gipuzkoako igerilari hoberenak elkartu ziren eta horien artean Buruntzaldea IKTko igerilariak egon ziren. Guztira 10 domina eskuratu zituzten. Arratsaldean, Buruntzaldea IKT-ko txikienean txanda izan zen. Dotore igeri egiteaz gain, lortu zituzten markak eta garaikurrak aipatzekoak dira, izan ere, parte hartutako proba gehienetan podiumeko lehen tokietara igotzea lortu baitzuten.

02 **Kalitatezko pintxoak eta euskara:** Euskararen egunari aurre hartuz, Muntteri-AEK euskaltegiak era paregabearen ospatu zuen egun seinatu hau, ikasleentzako pintxo lehiaketarekin. Bete beharreko baldintza pintxoak perretxikoa, urdaiazpikoa eta piperrak izatea zen. Urteik urtera maila handiagoa eta pintxo landuagoak ikusten dira.



03 **Hitzarmen sinatze ugari:** Abenduaren 3an, Udalak Lasarte-Oria aldikariarekin kultura sustatzeko hitzarmena sinatu zuen. Gizarte Zerbitzuetako sailarekin lan egiten duten Odol-emakile, Arantzazuko Amaren parroikia, Nagusilan, Berpiztu eta Clara Campoamor elkarteek ere hitzarmen sinatzea izan zuten abenduaren 9an. Eta 2011. urteko lehenengo hitzarmena Kalgatarena izan da. Sortu berri den MEGA-BA elkarteak antolatuko du Erregeen Kalgata eta horretarako, 4.520,35 eurotako laguntza emango dio Udalak.

04 **Lasarteoriatarrek Durango-ko Azokan:** Durango-ko azokaren 45. edizioa abendu-

duaren 4tik 8ra bitartean egon zen zabalik eta bertan herritar ugari egon ziren beren lanak aurkezten. Joseba Tapiak, *Eta Tira eta Tunba* diska, Pirritx, Porrotx eta Marimotots *Iriren Lagunak* Kluba eta *Ongi etorri Pupu eta Lore* diska, Harkaitz Canok *Blade of Light* eta *Ojo y Medio* liburuak, eta azkenik Arramazka *Bila Hadi* egindako kolaborazioa.

11 **Zesta-puntari bultzada:** Ehun lagunetik gora bildu ziren Michelingo frontoi estalian abenduaren 11n antolatutako topaketan. Kepa Urdanpilleta jokalaria ohia inguruan sortu den talde batek antolatu zuen topaketa zesta-punta bultzatzeko. Hamaika gaztetxo ibili ziren lehian, eta hauen txanda amaitu zenean, profesionalek hartu zuten erreleboa eta Donostiako Yagoba eta Erauskin pilotariak Hernaniko Iban Salas eta Urdanpilletaren aurka lehiatu ziren. Hernanikoek eraman zuten txapela. Ondoren merezitako omenaldia egin zioten antolatzaileek Kepa Urdanpilleta jokalaria ohia.



11 **Lasarteoriatarrek Sahararen alde:** Abenduaren 10ean Giza Eskubideen eguna zela kontutan hartuta, Mendebaldeko Sahararen egoera larria salatzen elkarretaratzea antolatu zuten Sahara Herriaren Lagunak taldeak, Komite Internazionalistak eta Askapenak, "lasarteoriatarrek euren elkatasuna erakusteko Saharar herriari". Berrogeita hamar herritar inguru bildu ziren.



11 **Pili Bodegas Zizurkilgo eta Lazkaoko krosetan garaile:** Abenduaren 11 eta 12an, Zizurkilgo gau krosa eta Lazkaoko Antzar krosa-Eñaut Aldanondo Oroimenezkoa lehiatu ziren eta bietan Pili Bodegas izan zen garaile.

14 **Helduen eskola berria inauguratuta:** Abenduaren 14an, Lasarte-Oriako H.H.I. Helduen Hezkuntza Iraunkorreko egoitza berria inauguratu zen, orain

03 Gazteak euskararen egunarekin bat egin zuten:

Euskararen eguna ospatzeko, abenduaren 3an, Gazte Klubeko eta Kuadrillategiko gazteek gonbidatuta argazki masiboa atera zen Andatza plazan. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, haur eta gaztetxoak, neskak batez ere, umorez eta gogoz azaldu ziren Andatza plazara haien atzeri koloretsuekin. Argazkiaren ostean, guztiak Itzartu herriko taldeak Jalgi kafe-antzokian eskaini zuten kontzertura hurbildu ziren.



DANI karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa



URTE BERRI ON!

Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 371440
Mobila: 608 391885
carroceriasdani@telefonica.net

Egun osoko Euskal Jai ederra



19 Abenduaren 19an euskal giroa nabarmendu zen herrian, Multimusikalaren barruan antolatutako lehenengo Lasarte-Oriako Euskal Jaian. Kalejira jendetsuarekin eman zitzaion hasiera egunari eta Michelingo gunean bukatu zen Kukuka taldearen abestia dantzatzuz. Egurdian ehun lagunetik gora bildu ziren Arrieskalleta elkarteak prestatutako bazkaria dastatzeko. Arratsaldean Erketzen eskutik dantzak ikasi eta dantzatzeko aukera ederra izan zuten.

Osasun Zentroko hirugarren solairura pasa da. Egun, 400 ikasle eta 14 irakasle daude eskola honetan.



14 Eguberri ekonomiko eta osasuntsuak: Modu ekonomikoan etxea nola apaindu eta Eguberri edo Gabon gauerako plater nagusia nola egin ikasi zuten Eguberrietako jardunaldietara hurbildu ziren herritarrak. Gainera, diabetesa duten gaixoentzat aholkuak entzuteaz gain, glukosaren gehiegizko kontsumoak osasunean izan ditzaken ondorioen berri ere izan zuten.



17 Kanpoan hotz barruan bero: 9. multimusikalean hotz egin bazuen ere, kontzertuetan izan diren herritar eta kanpotarrek ondo pasatzeko gogoia erakutsi zuten, eta giro beroa izan zen kontzertu guztietan. Ederki prestatu zuten antolatzailerik Oria erreka bazterrean dagoen Michelingo Tennis pista Multimusikala egiteko. Bi berogailu erraldoi hotzari aurre egiteko, pantaila erraldoia bideok emateko... Aurten Zea Mays talde ezaguna izan zen protagonistetako bat.



15 Xixukoren bisita, Eguberrien iragarle: Xixuko, Olentzeroren laguna, Lasarte-Oriako ikastetxeetan izan zen abenduaren 15eko astean. Olentzero egun hauetan lanaz lepo dabil, umeak onak izan diren edo ez erabakitzen, opariak aukeratzen, oparitako paperean biltzen, zakatan sartzen... horregatik, Xixuko bere laguntzaileak haurren eskutitzak jaso zituen.

18 Ezker abertzalearen legalizazioaren aldeko Lipdub-a: Abertzalearen legalizazioa eskatzeko Lipdub-a grabatu zuten Lasarte-Oriako Kale Nagusian. Grabaketa koloretsu eta alaia izan zen, bildu zirenak ilaran jarrita filmatu zituzten eta ondoren musikaz lagunduta San Pedro elizaraino egin zuten kalejira ere bai. Legalizazioaren aldarria nagusitu zen jendeak zeramatzan, pankarta, letra eta kukurutxoetan.



19 Eguberriko kontzertuan gabon kantak eskaini zituen Albokak: Hainbat herrialdeetako abestiak kantatu zituen Alboka Abesbatzak abenduaren 19an eskaini zuen emanaldian, Extremadura edo Andaluziakoak esate baterako. Hauekin batera, beste herrialde batzuetako eta Euskal Herriko gabon kantak ere eskaini zituzten.

19 Gasteizen korrika: Abenduaren 19an Ostadar atletismoko korrikariak Gasteizen ospatzen den erdi maratoiaren parte hartu zuten. 16 lagun joan ziren eta lehenengo herritarra Pello Artexe izan zen 1:26:40 denborarekin.

19 Gipuzkoako klubetako artetako mutilak hirugarren: Abenduaren 18 eta 19an Buruntzaldeko igerilariak Azpeitian izan ziren Gipuzkoako Klubetako artetako Kopan lehiatzen. Giro bikaina izan zen taldekideen artean. Txapelketari dagokionez benetan azpimarratzekoa izan zen talde osoak egindako lana, eta bereziki mutilak lortutako 3 postuagatik. Txapelketan zehar 32 marka pertsonal eta 7 errelebotako marka hobetzea lortu zituzten igerilariak.

19 Beltzak-Ostadar-Jalai: Beltzak-Ostadar-Jalaiak aurtentzako zozketatutako otarraren



TIRIKITRAUKI
MUSIKA DENDA

Urteberri on!

zero sette

Trikitixa eta esku-soinuetan aukera zabala: Berriak, 2. eskukoak eta alokairuan.

Oria etorbidea 10, 303. bulegoa • 20160 Lasarte-Oria • Gipuzkoa
Tel.: 943 372817 • www.tirikitrauki.com • tirikitrauki@tirikitrauki.com

Ubsla

MEKANIKAKO ZERBITZU OROKORRA

2011 zentzuzko opa dizugu!

Garajea

Jaizkibel plaza 2, beheko • Tel.: 943 370203 • LASARTE-ORIA



Urteberri on!



Agate
ESTETIKAKO ARETOA

- Makillajea
- Manikura
- Pedikura
- Solariuma
- Laser bidezko Depilazioa
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiko tratamenduak
- Masajea
- Gel-erzko azazkalak

Kale Nagusia 51 • Tel.: 943 370549 • LASARTE-ORIA



Udal Musika eskolak Eguberri giroa jarri zuen kulturetxean

20 Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako lagunek 2010 urteari amaiera ederra emateko, abenduaren 20an kontzertu paregabea eskaini zuten Manuel Lekuona kultur etxean. Eskolako txikiak kantuan, musika tresna desberdinen doinuak, abesbatza eta talde desberdinek prestatutako abestiak entzun ziren.

irabazlea Agustin Martin Salinas suertatu zen.

Saskian besteak beste, angula kilo bat eta Lcd telebista bat zegoen. Saski honetan Jalai, Aldatz-Ekua, Ilargi, Lasarte Taberna eta Felix Santos harategiak lagundu dute.

21 Giro ederra Santo Tomas egunean: Ttakunek antolatuta, txerria ikusgai, talo eta gaztain postua, sagardoa, erromeria... ekitaldi ugari egon ziren Sagardotegi kalean. Eguraldiak mehatxu egin bazuen ere, ateri mantendu eta jaia ederki ospatzeko aukera egon zen. Aurretik gainera txikiak bakoitzak bere taloa egin eta jateko aukera izan zuen.



22 Musiké Tekne-ren kontzertu ederra: Harizko instrumentuen hotsez bete zen Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa abenduaren 22an. Musiké Tekne lau koteak *Musika klasikotik herri-musikara* kontzertu polita eskaini zuen. Izaskun Etxebeste eta Tomas Ruti herri-tarra biolinak, Maider Lopez biola eta Nuria Nieto txeloan Mozart eta Haydn musikagile klasikoaren doinuak pop,

rock eta tango doinuak errepaso azkarra egin ziguten.



22 Babes lekuak eta Lasarte-Oria: Migel Angel Oribe herri-tarraren *Denboraren Muga* erakusketa, 17 urtetan burutu duen lanaren gogoeta sakon eta berrikuspenaren emaitza dugu. Bere bizitza profesionalen zehar mugen bilaketa, landu gabeko bideak, ertz ilunak, ezezagunerako bidaia eta ikasketa prozesua aztertzen ibili da, eta oraindik aurkitu beharrekoen bilaketa lanean dihardu. Abenduaren 22an kultur etxean erakusketa inauguratu zen eta urtarrilaren 14a arte egongo da ikusgai.

24 2010, beste urte bat preso: Abenduaren 24an Lasarte-Oriako preso politikoen aldeko brindisa egin zen eta gabon zahar egunean manifestazioa herriko kaleetan zehar. Honetaz gain, aurten Lasarte-Oriako preso politikoen senide eta lagunek hauen poesia, kontakizun eta bertsoen errezitaldia antolatu dute 2011ko urtarrilaren 7rako 19:30ean Xirimiri elkartearen eta herri-tarrei bertara hurbiltzeko deialdia egin zuten.

24 Gabon Gauean kantari: Ohiturari jarraituz, talde ugari atera ziren kalera abestera: Zabaleta Auzokoak, Landa-berri ikastola, Naximentuaren lagunak, Alboka Abesbatza, Erketz Dantza Taldea... Ttakunek Olentzerori ongi-etorria emateko jaialdia antolatu zuen, Ogi-Berri okindegiko Olentzerok madalenak banatu zituen...



Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udalak
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@itakun.com • Publizitatea: publikizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintzarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

SANCHO TABERNA

Kaxuela,
pintxo eta
morunoetan
espezializatua

2011 zoriontsua opa dizkizuegu !

**HITZARTUTAKO
eta
TALDEENTZAKO
MENUAK**

**Ogitartekoak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Eguneko menua**



Oriamendi enparantza 1 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 372075

**Urtezahar gauean
irekita gau osoa**

2011 zoriontsua opa dizuegu !

**EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK**

Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA



TABERNA
Buenetxea
KAFETEGIA

GAU OSOA IREKITA !!

Urteberri egunean
12:00etatik aurrera
irekita!

**ZATOZ GUREKIN 2011 URTEARI
ONGI ETORRIA EMATERA !!**

URTEBERRI ON !

Pintxoetan
aukera zabala

Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508
LASARTE-ORIA



KAFE BEREZIAK:
IRLANDESA
ESKOZESA
KAPUTXINOA
BONBOIA



Aldaz hortz klinikak
jai zoriontsuak eta
Urteberri on

2011
opa dizue



RPS124/10